



LURRALDE ELKARGOIA: IRMO JOKATZEKO GARAIA

JOXEMIEL BIDADOR

Euskaldunen erresistentzia
taularatuko duen
pastoral berezia

1936KO KRIMENAK

Urbasako fusilatzeak
argitara ateratzen ari da
Balbino García de Albizu

NET HURBIL

Saudi Arabiak Mekako
turismoarengan du dirua
egiteko fedea

JOXEMIEL
BIDADOR
PASTORALA
IRUÑEKO EUSKALDUNAK

Sarrera-liburuxka
salgai
KARRIKIRIn
(Xabier karrika 4)
Erreserbak:
948 225 845
edo
bulegoa@karrikiri.eus



2015eko
URRIAREN 10a,
LARUNBATA
17:00etan,
BURGOEN
PLAZA
IRUÑEA

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEA:





Azaleko argazkia:
MIKEL ASURMENDI
Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukia kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estixu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argaia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Diseinua: Sergio Labrador. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argaia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argaia.eus. Erredakzioa: kazeta@argaia.eus. Interneten: www.argaia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekoa, 41 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko urriaren 11, 2.478. zenbakia

ASTEKO GAIA

LURRALDE ELKARGOA Instituzioaren behar gorria.

MIKEL ASURMENDI / 4

PERTSONAIA

MINTXO GARAIKOETXEA ARANBURU: «Ohorea da inauteriak bezalako ekitaldi ikur batean parte hartzea».

REYES ILINTXETA / 9

GAIK

NAFARROA OINEZ Baztanen xarma berreskuratu du Oinez

Baso komunalak. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 14

IRITZIAREN LEIHOA

GIZARTE EKONOMIAZ HAUSNARTZEN MIKEL ZURBANO / 18

ARMAIRUTIK ATERATZEN ANGERU EPALTA / 20

NAFARROAK HISTORIA POLITIKORIK BAI? PAKO SUDUPE / 21

GIZONA EZ DA EMAKUME HILTZEN PABLO SASTRE / 22

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN (D)iruzur. ITXARO BORDA / 20

ERDIKO KAIERA

JOXEMIEL BIDADOR PASTORALA Lagunaren omenez, Iruñeko euskaldunaren gorazarrez.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 24

ANDER LIPUS: «Sail Ofizialean euskarazko bi film urtero, zergatik ez?». MYRIAM GARZIA / 28

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE / 30

MUSIKA MONTSERRAT AUZMENDI / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 32

OSASUNA JABIER AGIRRE / 33

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 34

● **BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU** / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

1936KO KRIMENAK Urbasako hiltegia.

URKO APAOLAZA AVILA / 37

TXANPONAREN BESTE ALDEAK Betiko ofiziotik, haize berriak. LANDER ARRETXEIA BEREZIARTUA / 41

KATALUNIA INDEPENDENTZARANTZ Ezkerreko independentisten erronkei begira. AXIER LOPEZ / 42

MUNDUA BETE PANTAILA Errealitate ukigarria edo etorkizuneko asmo handiak? ELI POMBO / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Mekako erromesak, Saudi familiaren beste petrolioa. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Instituzioaren behar gorria

Ipar Euskal Herriko elkargo berria osatzen ari diren eragileak garai erabakigarrian sartu dira. Alta, bost urte beharko dira instituzioa erabat definitzeko. Herri Elkargoaren aukerari Hirigunearen ideia aurreratu zaio udazkenean. Hirigunea Pirinio Atlantikoetako André Durand prefetaren xedea da. Herrietako kontseiluek aukeratu beharko dute urtea amaitu bitartean.

| MIKEL ASURMENDI |

HIRIGUNEA ETA HERRI ELKARGOA dira Ipar Euskal Herrirako eratu nahi den instituzioaren azken izenak. Izan ere, instituzio berriaren izena zehaztugabe dago gaur-gaurkoz. Definizio ezak instituzioaren izana eta egitura korapilatsua adierazten du. Herri Elkargoa, besteak beste, Herrien arteko Elkargoa ere deitua da. Halaber, azkeneko hiru urteetan, Bateran biltzen diren gizarte eragileen eskara Lurralde Erkidegoa izan da, tokikoek Lurralde Kolektibitatea deitua. Iraganean, euskal instituzioa edo elkargo horiek guztiak, Euskal Departamendua izenez aldarrikatu ziren. Izenak izen, hainbat dira berezko instituzioaren alde lanean ari diren eragileak. Gizarte eragileak Garapen Kontseiluan biltzen dira eta eragile politikoak Hautetsien Kontseiluan. Alderdi politiko guztietan badaude instituzioaren aldeko kideak –alderdi abertzaleetan guztiak–, baina alderdi guztiak ez dira Ipar Euskal Herriari marko instituzionala ematearen aldekoak, frantsesak bereziki. Batera, herritar plataforma, ari da bereziki berezko instituzioaren alde lanean.

Departamendutik Lurralde Elkargora: orain Herri Elkargoa da aldarri

Euskal instituzioa aldarrikapenaren bilakaera ulertzeko gibelera egin behar dugu, 1999 urtera. Departamenduaren aldeko manifestazio oso handia egin zen Baionan. Deialdiak hautetsi asko bildu zuen lehen aldikoz. Harrez gero, 2002an, Batera sortu zen. Euskal Departamendua aldarrikatzeaz gain, euskara, unibertsitatea eta Laborantza Ganbararen aldeko berezko egiturak eskatu zituen. Herritar gehienek ongi baino hobeto ulertu zuten zein diren eskaera horiek. 2009an alabaina, Frantzian prozesu berria abiatu zen.

Lurralde Kolektibitatea aldarrikatetik Herri Elkargoa eskatzera pasa dira gizarte eragileak

Prozesuak Departamenduaren desagerpena ekarri behar zuen. Ondorioz, honen eskumenak eskualdeei (erregioak) pasako zizkielarik. Euskaldunen kasuan, Pirinio Atlantikoetako Departamendua Akitania Erregioan integratuko litzateke. Garai hartan eskuinak gobernatzen zuen Estatuan, egun berriz, ezkerak. Edonola ere, edozein alderdi boterean dagoela ere, gobernuak prozesua deszentralizazio politikaren barnean kokatu izan dute.

Estatuak erreforma honen –deszentralizazioa deituaren– bitartez, Departamenduaren eskumenak erregioen eta herri arteko elkarrengoen artean banatu eta egokitu nahi ditu. Baterak, Frantziako Gobernuak erregioetarako marko politiko berriak eraiki nahi zituela ikusita, barne gogoeta egin ondoren, Departamenduaren eskaeraren ordez, beste egitura bat aldarrikatzea erabaki zuen. Unea mugarrria izan zen: 35.000 pertsonen herri kontsultan parte hartu zuten 2010ean. Baterak Departamendua eskatzetik Lurralde Kolektibitatea eskatzera pasatzeko borroka pedagogiko sakona egin zuen. Oroitu behar da herri kontsultaren antolaketa gaitza. Galdera hauxe izan zen: “Lurralde Kolektibitatearen alde edo kontra zarea?”. Batera estatus bereziko instituzio berria aldarrikatzera iragan zen, harrez gero.

2013an, ordea, Jean-Marc Ayrault lehen ministroak hauxe adierazi zuen: “Ez da estatus bereziko instituziorik gehiago sortuko Hexagonoan. Haatik, egungo eskubide publikoan egitura batzuk badaude zuen eskakizunei erantzuteko”. Parisek ezezko biribila eman zion estatus bereziko instituzioari, hots, Lurralde Kolektibitateari. Baterari bi aukera geratu zitzaizkion: indar lehian segitzea edo Estatuak eskaintzen dituen aukerak baliatzea.



Baterak Herri Elkargoa osatzea du helburu orain. Hala ere, Lurralde Kolektibitatearen xedea ez du baztertu. Azken hiru urteetan Baionako eta Mauleko karriketean milaka jende bildu da xede horretan. Lurralde Kolektibitatea aldarrikatzen Herri Elkargoa eskatzera pasa dira gizarte eragileak.

Ipar Euskal Herriko Elkargoa, izen hautatua Gobernuak, André Durand prefetaren bidez, bost proposamen hauen artean aukeratzeko eskatu zien hautetsiei: Hirigunea elkargoa, Herri elkargoa, Metropoli poloa, Lurralde oreka edo egungo *Pays* egitura. Azken hau

2013ko azaroaren 30ean, Maulen Lurralde Elkargoaren alde herritarrek egin zuten manifestazioaren irudietako bat.

berehala baztertu zen, zaharkituta baitago. Gainerakoen artean, Ipar Euskal Herriko Elkargoa da Baterak nahi duena, baita gizarte eragileek nahi dutena ere.

Ipar Euskal Herriko Elkargoa ekimena prefetak iazko ekainean egin zuen proposamenaren ildoan garatzen hasi zen, NOTRE legearen markoan. Lege araudi hori da instituzioari eskumen eta finantza gehien eman diezazkiena. Horixe bera da juristek hautetsiei proposatu ziena. Proposamena herri

Garapen eta Hautetsien kontseiluak sendotu beharra

GARAPEN ETA HAUTETSIEKON kontseiluak funtsezko bi erakunde dira euskal instituzioa lortzeko. Urte luzetan, hainbat erakunde Lurralde Kontratuaren bidez egituratu dira. Kontratu alabaina, kinkan dago. Euskal instituzioaren beharra izugarria da. Garapen Kontseiluak betebeharrak handia izan du bere historian. Gizarteko hainbat sailtako eragileak eta ordezkariak biltzen dira bertan.

Garapen Kontseilu berria

Garapen Kontseiluak zuzendaritza berria dauka maiatzaz gero, Caroline Phillips lehendakaria eta Paxkal Indo lehendakariordea buruak izaki. Enpresan eta euskalgintzan arituak. Kontseilu honek egitura instituzional berria eraikitzeko aukera azkartu nahi du herri elkarte bidez. Instituzioa lortu bitartean (2015-2016 urteetan), gai hauei lehentasuna eman die: 1. Hezkuntza, lana eta etxebizitza gazteei begira lantzea Euskal Herrian finka daitezela. 2. Ingurumena eta garapen ekonomikoa ongi uztatzea, ondare naturala babesteko. 3. Kultur politika eraginkorrago antolatzea. 4. Bigarren etxebizitzaren afera ongi aztertzea. 5. Trantsizio ekologiko eta energetiko egokia aitzinetik lantzea. 6. Hego eta Iparreko mugaz gaindiko harremanak sustatzea.

Etchegaray hautetsien burua

Jean-René Etchegaray da Hautetsien Kontseiluko presidente berria, Jean-Jacques Lasserre Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiko presidente berriak kar-



Etchegaray eta Phillips, Hautetsien eta Garapen kontseiluko presidenteak.

ISABELLE MIQUELESTORENA

gua utzi ondoren. Baionako auzapeza da, zentrista eta Baterako kidea. Ipar Euskal Herriko instituzioari buruzko eztabaida erabakigarria denean hartu du presidentzia. Baionako Herriko Etxearen gobernua hartu izanak ere lagundu beharko luke Baterak bultzatzen duen ekimena.

Baterak eta Euskal Konfederazioak Lurralde Elkargoaren eta euskararen alde manifestatzera deitu dute Baionara, urriaren 24rako

Bi kontseiluen lana funtsezkoa da Euskal Herriak behin-behinean bizi duen egoerari buru egiteko. Hautetsiek Frantziako Gobernuarekin, eta Akitania eta Pirinio Atlantikoetako kontseiluekin

negoziatzen dute Lurralde Kontratu. 2000-2006 Hitzarmena eta 2007-2013 Lurralde Kontratuaren ondoren, Kontratu berria Garapen Kontseiluak landutako bederatzidat nagusitan oinarritu da: 62 ekimen barnebiltzen ditu, 300 milioi euroko aurrekontuarekin. Partaideek (Estatua, Eskualdea, Departamendua) 166 milioi eurotan igo dute diru kopurua.


Alabaina, bi kontseiluetako presidenten erranetan, Ipar Euskal Herriari egokitutako hirugarren Kontratuaren finantza publikoen murrizketa izan da, eta gertatua lurralde erreformaren testuinguruan kokatu behar da. Ondorioz, NOTRE legearen egokitzapenak erkidego zenbaiten eskumenen birbanaketan eraginen du, eta hauetako batzuen lan eremua txikituko da. Euskal Konfederazioak eta Baterak euskararen eta Lurralde Elkargoaren aldeko Deiar manifestaziora deitu dute Baionan urriaren 24rako.

elkargoetako ordezkariak landu dute orain arte, ordezkariak herrietako hautetsiak direlarik.

Hirigunea eta Herri Elkargoaren aukerak nagusitu dira, baina hainbat eztabaida sorraziti dituzte. Hirigunea delakoaren bidean, legeak eskumen baliagarriak eskaintzen omen ditu. Egungo herri elkargoetatik Herri Elkargoa edo Hiri Elkargora pasatzeko unean, biz-

tanle kopurua “traba” edo “gakoa” da. Antza, legeak bide malguagoak eskaintzen ditu Hirigunea antolatzeko. Beste traba bat Akitania eskualdearen berregituraketa da. 2016tik aitzina, Akitania-Poitu-Charantes-Limosuain eskualde berria izatera pasako da. Euskal Herriko biztanleria –kopuru txikia dela eta– lehen “urtua” bazegoen, urtuago izanen da erregio berrian.

Ipar Euskal Herriko Elkargoa



Egunero Herri Elkargoen mapa
10 LURRALDE



Lan eta bizi eremuak
6 LURRALDE



Ipar Euskal Herrirako instituzioaren aldeko ekimena, nolabait ere, Bordeleko politikari begira dago, eta funtsean, Eskualde berriaren egituraketak baldintzatuta. Legeak Hirigunea egituraren aukera errazten du. Diotenez, Hirigunea eratuz gero, instituzio horrek harreman zuzenagoa izango luke Estatuko administrazioarekin. Uneon, Estatua, Eskualdea eta Departamendua lotzen dituen Lurralde Kontratuaren negoziazioan, Hirigunea sartuko litzateke zuzenean. Herri Elkargoaren kasuan, negoziazioa edo elkarrizketa zailagoa litzateke. Herri Elkargoak lehiatu beharko luke Eskualdeko beste hirigunerekin (beste batzuk ere sortu bailitezke). Badago besterik ere, lehen urtean Hirigunea ekime-

Ipar Euskal Herrirako instituzioaren aldeko ekimena Bordeleko politikari begira dago, eta funtsean, Eskualde berriaren egituraketak baldintzatuta

nak 10 milioi euro jasoko luke finantzatzeko Estatuaren aldetik. Alegia, Herri Elkargoaren nahia herriko etxeetako hautetsiek lehenetsita ere, dirutza hori herriko etxeetako aurrekontuaren %60 da. Beraiek jarri behar al dute? Beraz, Hirigunea edo Herri Elkargoa aukeratzeko

orduan, finantzazio moldeak eragina izanen du hautetsien bozetan. Galdera da: Hirigune Elkargoa egokiena al da euskal herritarrentzat?

Instituzio berriaren sorrera 2017 urterako aurreikusita dago. Baina, egitura hori ez da bat-batean eskumenez osatuko. Bi urteko trantsizioa beharko da egungo herri elkargo instituzioetatik balizko instituzio berrira iristeko. Hautetsiak aztertzen ari diren prefeta-



ren dokumentuak mailaz mailako egitura-tzea proposatzen du: behean herriak daude. Erdian, lurralde antolaketarako egitura publikoak. Goian, Herri Elkargoak agertu beharko luke. Horregatik, hiru maila horien artean, adituek bitarteko juridiko baten beharra ikusten dute. Anartean, one-nean ere, Ipar Euskal Herriak ez du beharrezkoa duen instituzioa osatuta ikusiko 2020 urtera arte.

Kostaldearen eta barnealdearen desoreka

Egitura instituzional berriak –berezko instituzioa antolatzeak– lurraldearen desoreka demografikoaren arazoa gainditu beharko du gobernagarria izan dadin. Gobernantza, eskumenak eta finantzazioa dira gai nagusiak. Hautetsiek gobernantzari buruz landu behar dituzten proposamenak hauek dira: lehen betebeharra 158 herri egitura bakar batean batzea. Egiturak eraginkorra izan behar du, eta orekatua. Bestela, barnealdeko herri txikiak ez lukete kostaldeko hiri botere-tsuen ahalmena. Orain arteko bileren ondoren, juristek hiru instantziako elkargoa proposatu diete hautetsiei, Elkargo kontseiluak, Batzorde iraunkorrak eta Auzapezen biltzar-rrak kudeatua izanen dena. Elkargo kontseiluak, 232 kidek osatua, botere erabakigarria izango luke. Kontseilu horren gibelean Auzapezen biltzarra legoke, 150 auzapezekin. Halaber, Garapen Kontseilua legoke, hots, gizarte zibilaren ordezkariak. Elkargo kontseilu horren Batzorde iraunkorra litzateke

“Hirigunea Elkargoak egokitzapenak egiteko aukerak ematen ditu. Horrek zenbait hautetsi lasaituko lituzke”, erran du orain gutxi André Durand prefetak. Ezbairik gabe, prefetak Hirigunea aukeraren alde egin du.

botere betearazlea, presidenteak, hamabost presidenteordek eta 60 kidek osatua. Edonola ere, proposamenaren arabera, Elkargo kontseiluak izango luke hiru kontseilu horien artean erabakitzeko ahalmen handiena. Aurrekontua, esaterako, Kontseilu horrek ebatziko luke. Era berean, arazo demografikoa gainditu aldera, Kontseiluko 72 eserlekuak herrien pisu demografikoaren arabera erabakiko lirateke, hau da, hainbat herrien eragina egokituko litzateke euren betebeharrera. Horra berezitasuna.

Proposamenak, egungo herrien elkargoak Elkargo bakarren batu ondoren, hautetsiak herrietatik urrun gelditzeko arriskuaz ohartarazten du. Arazo hori konpondu aldera, Kudeaketa lurraldeak batzordea sortzeko aukera ematen du proposamenak. Egun hamar dira herrien arteko elkargoak, beraz, hamar batzorde lirateke. Alabaina, egungo Elkargoaren mapa hamar lurraldetan banatuta badago ere, praktikan, herrien elkargoak sei lurralde eremuetan ariko lirateke. Lapurdiko lau lurraldetan, eta Baxenabarreko eta Zuberoako lurralde bakarrean. Lehen zereginen artean, “gizarte zibilaren” arazoei erantzun beharko liekete eta Garapen Kontseiluaren bermea izango lukete. Eskumenak eta zerga sistema dira instituzio berria osatzeko definitu beharko diren sailak.

Ipar Euskal Herriko Elkargoa ala Hirigunea?

Proposamena bide orri bat baino ez da: Hirigunea ala Herri Elkargoa? Horra galdera. Izan ere, hautetsi gehienek aukera Herri Elkargoa izan daitekeela ikusi denean, suprefetaren nahia nagusitzen ari ote den ustea zabaldu da. Ez da ahaztu behar, iragan uztailan, Angelu, Miarritze eta Donibane Lohizuneko auzapezak, hiri handietako auzapezak, Herri Elkargoaren aurka jarri zirela –Baionako auzapez Jean-René Etchegaray da salbuespena–. Ezbairik gabe, auzapez horien jarrerak Hirigunea aukeraren alde egiten lagundu du: “Hirigunea Elkargoak egokitzapenak egiteko aukerak ematen ditu. Horrek zenbait hautetsi lasaituko lituzke”, erran du prefetak berriki.

Beraz, Herri Elkargoaren aukerari Hirigune bakarraren ideia aurreratu zaio udazkenean. Irailaren 27an, André Durand prefetak aukera horren alde egin du Hautetsien Kontseiluaren Biltzar Nagusian, ehun auzapezei aurkeztu die, Itsasu herrian. Adibiderako, Dijon hiria litzateke nolabait, prefetak proposatzen duen Hirigunea. Borgoinako eskualdearen eta Côte-d’Or departamenduaren hiriburua. Alta, Lurralde edo Herri Erkidegoa badago Frantzia. Korsika izan da instituzio hori erdiesten lehena. ■

MINTXO GARAIKOETXEA ARANBURU

«Ohorea da Lantzeko inauteriak bezalako ekitaldi ikur batean parte hartzea»

Sanferminetatik hasi eta Lantz, Ituren eta Zubietako inauterietatik segituz, son kubatarraren gaudietatik pasatuz, festa askori soinu banda jartzen dien musikari trebe, alai eta umoretsua.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco



Musikazaletasuna noiztik?

Gure etxean musika oso garrantzitsua izan da beti. Ama Orfeoiko abeslaria zen, solista gainera. Aita ere kantazalea zen eta biak dantzariak. Musika eta euskal folklorea beti izan ditugu oso gertukoak familian. Eta euskara berdin. Aita euskaldunberria dugu, anai-arreba gazteenak ikastolara joandakoak dira eta besteok euskaltegian ikasi dugu.

NORTASUN AGIRIA

Mintxo Garaikoetxea Aranburu. Iruñean sortua, 1961eko ilbeltzaren 30ean. Iruñeko Udal Txistulari Banda, Jarauta 69, Kiki Bordatxo eta Sonora Sonora taldeetako partaidea, besteak beste. Sanferminetan, Lantzeko inauterian, Ituren eta Zubietakoan eta Zarauzko sanpelaiotan ezinbesteko musikaria.

MINTXO GARAIKOETXEA ARANBURU



Hamar anai-arreba gara eta gure artean baditugu txistulariak, atabalari bat, Orfeoiko kideak, San Fermin koruan ibilitakoak... Musika giroan bizi izan gara beti.

Txikitatik solfeo ikasketak egin nituen eta baita saiakera batzuk ere pianoarekin eta oboearekin, baina horiek utzi eta berehala hasi nintzen txistua ikasten Iruñeko Kontserbatorioan. Ondoren, Iruña Taldea dantza taldean sartu nintzen txistulari eta horrela hasi zen nire ibilbidea. Oso gazte nintzela ere, 16 urterekin, Iruñeko Udal Txistulari Bandan hasi nintzen eta harrezkero han jarraitzen dut.

Nafarroako Ekonomia eta Ogasun kontseilaria, Mikel Aranburu, lehengusu propio duzu eta hura ere udal txistularia, ezta?

Eta dantzaria. Taldean dago eta laguntza behar dugunean beti prest dago, baina emaldi guztietara etortzeko ardura utzi behar izan zuen eta orain kargu berriarekin are lanpetuago ibiltzen da.

Zein dira zure urteroko ezinbesteko hitzordu musikalak?

Lantzeko inauteriak, Ituren eta Zubietakoak, sanferminak, eta Zarauzko sanpelaioak eta

Euskal Jaiak. Egun horiek dira nire opor egutegia egiterakoan markatzen ditudan lehenbizikoak.

Iruñeko txistulari batentzat Udal Txistulari Bandan edo Lantzeko inauterietan aritzea zer da, mailarik gorenera iristea?

Baietz uste dut nik. Lantzera duela hogeitatu urte hasi ginen joaten Mintxo Salaberri eta biok, kontratatuta. Oso egun politak izateaz gain, ohorea da folkloreaken ekitaldi ikur batean parte hartzea. Urte batean, inauteri garaian, San Franciscoko Euskal Etxera jotzera joateko aukera izan nuen, baina ezetz esan nien Lantzera joan ahal izateko.

Garai batean bezain erakargarri izaten jarraitzen du inauteri ospakizunak, zure ustez?

Urte batzuetan jende gehiago hurbiltzen da eta besteetan gutxiago, eguraldiaren arabera, bereziki. Hala ere, oro har, ni hasi nintzenezan masifikazio gehiago zegoela uste dut.

Eta Ituren eta Zubietara joateko ere deitzen zaituzte?

Ez. Hara nire kabuz joaten naiz, lagunak direlako. Duela 26 urte han izan nintzen erizain urtebetez eta geroztik urtero joaten naiz jotzera.

Gauza bera Zarautzen?

Bai. Zarautzen ere lagunak ditut eta sanpelaio eta Euskal Jaietara joaten naiz urtero oso pozik.

Txistuaz gain, beste musika tresnak ere jotzen dituzu, eta abestu egiten duzu. Zenbat taldetan zaude orain?

Iruña Dantza Taldean jarraitzen dut txistulari, baina ez naiz entsegu guztietara joaten, lehen bezala. Beste txistulari batzuk badira orain eta ni noizbehinkako kolaboratzailea naiz. Udal Txistulari Bandan ere ari naiz, eta hor bai, urte osoan ditugu entsegu eta betebeharrak. Nire aspaldiko beste taldea Jarauta 69 da. Azken urte hauetan Iparraldeko plaza talde batekin aritzen naiz, Kiki Bordaxorekin, eta duela gutxi hemengo eta Tafallako lagun batzuekin son kubatar talde bat egin genuen: Sonora Sonera. Hor tronpeta jo eta abestu egiten dut. Eta gero nire kabuz beste gauza batzuk ere egiten ditut.

Musika kubatarra, zer dela eta?

Lagun batzuk Kuban izan ziren, eta gustuko genuenez hango musika, proba egitea erabaki genuen. Horrela hasi eta hamar bat urte darabagu. Laster izanen gara adineko kubatar talde mitiko haien modukoak!

Musika latinoa oso modan dago?

Bai, baina gure son estiloa ez da oso erakargarria saltsa eta bachata dantzatu nahi dutezentzat. Batzuetan pieza mugituagoak eskatzen dizkigute, baina guri hau gustatzen zaigu eta hau jotzen dugu.

Jarauta 69 instituzio bat da gaur egun Nafarroan.

Jarautarekin 30 urte inguru darabagu. Jarauta kaleko 69. zenbakian zegoen etxabe batean hasi ginen, eta nahiz eta berehala 65era pasatu, izen horrekin gelditu ginen. Txiste moduan esaten dugu garai haietan 69 esan eta irribarre maltzurra egiten zuela jendeak. Orain, aldiz, esaten dugu zenbakia aipatu eta jendea hasi dela pentsatzen taldekideon adinagatik dela. Euskal kantak, jazza, musika balkanikoa, kubatarra, saltsa, erritmo latinoak, mexikarrak... estilo askotako kantak ditugu eta beti saiatzen gara pieza berriren bat sartzen, baina jendeak gehienetan kanta zaharrak nahiago izaten ditu. *Amapola* eta *Volver volver* mexikarra, adibidez, dira gure *hit* parade-tako bi.

Hainbeste taldetan izanik, zure ordutegia antolatzea ez da erraza izanen...

Ez ba! Bi talderen entseguak batera suertatzen badira, bat aukeratu behar. Ni gabe konpontzen badira, besteekin joaten naiz.

Eta honetaz gain, lana. Erizaina zara.

Bai, erizaina naiz Mutua Navarran. Lan istripuak artatzen ditugu. Abantaila da txandaka ibiltzen garela eta gure artean oso ongi moldatzen garela lan txandak antolatzeke.

Zure opor egun guztiak musikarako dira?

Ez. Bidaiatzea ere asko gustatzen zait, baina egia da nire opor egutegia antolatzean markatzen ditudan lehenbiziko egunak emanaldietarako behar ditudanak direla.



Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)

☎ 943 783 447 / 617 442 466

mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-guipuzcoa.com

Nor da Mintxo

Mintxori buruz mintzo

“Izaten dira, ba, dohain berezi baten jabe diren izaki pribilegiatu batzuk, beren gus-tuko eremuko gauzak ahaleginik gabe egi-ten dituztenak, itxura batean bederen; airean bezala dabiltzanak beste gainera-kook lokatzetan trabatuak gauden artean; demagun, gutxi gorabehera biribila den eta pilota antz pixka bat duen edozer gau-zari edozer tresnarekin astindu, jo, eman, eta buena egiteko arazorik ez daukatenak, are bi paretakoa. Mintxori soinua ateratzen duen edozein gauza eman –ahotsetik haste–, eta kontzertu bat prestatzen dizu arazorik gabe, izan habanera, borthüko airea, zortziko edo jota. Erraz-tasun horrek asko behar du berezkotik; saiatzetik zenbat, berak jakingo du. Eta harrigarri eta gozagarririk, dena”.

Jon Alonso

Gure ttuntuneroa irunshemea

“Ohatzean goxo-goxo zaudela, goizeko lehen soinuari lotuta ikusten dut Mintxo, Iruñeko Alde Zaharrean karrikaz karrika jotzen dabilela; udal txistularia baita, eta hantxe sumatuko duzu igandero, goizean goiz. Edo Gazteluko Plazako kioskoan, uda parteko astearte eta ostegun arratsal-deetan, edo Napoleonen tankerako kape-lu dotore-dotorea buruan jantzita, San Fermin eguneko prozesioan. Hortaz, ttuntuneroa eta irunshemea, hitz horien esanahi osoan”.

Kike Diez de Ulzurrun

“Lantzeko ihauterian: Mintxo

Iturengoan: Mintxo

Arizkungoan: Mintxo

Gotaineko pastoralean: Mintxo

Xiru jaialdian: Mintxo

Karibeko musikan: Mintxo

Mugarik gabeko EH batean: Mintxo

Mintxo txistuan, Mintxo tronpetan.

Tubarik ez? Mintxo tuban!

Tresnarik ez? Mintxo kantari!

Nor bizi da naturalki euskaldun Euskal Herri(et)an, dagoen lekuan musikaz gain lagunak “euskal-kutsatuz”, alegia deus ez, umore onez?

Erantzuna: Gure Mintxo prefosta!

Xiberoko Haize Epailea”

Mixel Etxekopar

Eta musikari profesionala izatea ez duzu inoiz pentsatu?

Agian nire garaian ez ziren orain dauden ikasketak eta zailagoa zen horretan profesio-nalki aritzea. Bestalde, lehen etxeetan, fami-lietan, norbaitek esaten bazuen lanbidez musikari izan nahi zuela ia-ia erotzat hartzen zuten. Orain, ikuspuntua izugarri aldatu da, zorionez. Hala ere, batzuetan pentsatzen dut musika lanbidetzat hartu izan banu agian afizio gutxiago izanen nukeela orain. Niretzat musika ihesbidea da, oso ongi pasatzen dut.

Bidaia askotxo egin duzu txistua eta tronpeta besapean hartuta?

Europa eta Amerikako hainbat tokitan izan naiz. Txistuarekin Sizilian, Polonian, Alemanian, Ingalaterran, Irlandan, Argentinan, Txilen... Kiki Bordatxorekin Kalifornian eta beste talde batekin Quebecen aritu ginen.

Jendea ezagutzeko parada ere ematen dizu. Jende pilak agurtzen zaitu kalean jotzen zoazela, sanferminetako prozesioan, adibidez.

Bai, eta nahiko itxia naizenez, baliogarria suertatzen zait jotzen aritzea hitz egin behar ez izateko. Batzuetan neure buruaz esaten dut bizi sozial zabala duen gizon asoziala naizela.

Txistuaren atzean ezkututzen zara, beraz?

Errazago bonbardinoaren atzean...

Zenbat musika tresna jotzen dituzu?

Txistu familiakoak txistua eta txirula, gero bonbardinoarekin eta tronpetarekin hasi nintzen nire kabuz.

Txistuak euskal labela du?

Txistua hemengoa da, baina familia horretako tresna asko dago: Aragoian *chiflo* da, Salamanca eta Extremaduran *gaita* deitzen diote, Andaluziakoa *pito rociero*, Provenzan *galoubet*... Hiru zuloko flautak dira denak.

Eta ttun-ttuna?

Zuberoan egin genuen ikastaro txiki bat eta gero joaz ikasi dut. Dantzetarako piezak dira, bereziki.

Harreman onak dituzu Iparraldeko musikariek?

Bai, nire taldekoekin eta Mixel Etxekoparrekin, adibidez. Duela gutxi, haien Atlas Geo-poetikoaren atal bat egitera etorri zirenean, nire etxean gelditu ziren lotara eta berdin ni hara joaten naizenean, bere etxeko atea beti irekita ditut.

Elkarrengandik asko ikasten duzue?

Nik berarengandik bai, baina alderantziz ez dut uste. Mixel, beste maila batean, maila berezi batean, aritzen da. Irudimen handikoa da eta sortzaile bikaina.

Folklorean zer puntutaraino egiten dira gauza berriak?

Folklore bizirik dagoen zerbait da eta aldaturaz doa etengabe. Horregatik ongi dago gauza berriak sortzea. Orain badira mugimendu interesgarriak folklorea berritzeko: Erriberan *palotean* berritzaileak egiten ari dira azken urteotan, esate baterako. Beste adibide bat izan daiteke hemen Iruñean San Lorenzoko Danzanteek egiten dutena: dantza pieza berriak estilo zahararekin. Oso interesgarria.

Udal Txistulari Taldean ez, ezta? Hor errepertorio finkoa duzue?

Bai. Prozesioan, dantzaldiak, dianak... dena berdina izaten da. Baina txisturako egiten dira pieza berriak eta Txistulari Elkartek partitura berri asko ematen ditu argitara. Haien artean denetik ikusten da, baita pieza garaikideak ere.

Sanferminetakoaz gain, zer egiten duzue Iruñeko txistulari ofizialok?

Azarotik uztaile arte igandero dianak jotzen ditugu hiria iratzartzeko. Gehienbat Alde Zaharrean barna ibiltzen gara, baina auzoetako jaiak direnean haietara joaten gara. Eguerdiko ibilaldi batzuk eta dantzaldiak ere izaten ditugu urtean zehar. Ekaina eta abuztuaren bigarren hamabostaldian eta irailean, astearte eta ostegunetan dantza saioak egiten ditugu arratsaldean Gazteluko Plazan. Data garrantzitsuak dira baita ere, Batasunaren Pribilegioaren eguna, San Fermin Txikiren dianak eta Jaun Done Saturdi eguneko ospakizunak. Entseguak astean behin edo bitan egiten ditugu.

Nola ikusten duzu txistuaren harrobia?

Musika eskoletan eta dantza taldeetan gazte asko ikusten dira.

Dantza saioetan zer ikusten da Gazteluko Plazako kioskotik?

Garai batean gazte gehiago ikusten zen, agian han lagunekin elkartzeko aprobetxatzen zutelako. Orain, aldiz, gehienak dantza zale beterranoak dira, ikastaroetan eta dantza taldeetan ibilitakoak, eta huts egin gabe joaten dira.

Folklorearen hemen oso lotua dago jarrera politikoko batekin?

Litekeena da eskuineko jendea dantzazalea izatea, baina errealitatean ikusten da gehienak euskaltzaleak garena.



AZKEN HITZA

Joxemiel Bidadorren oroimenez

Iruñean urriaren 10ean estreinatuko den pastoral berezian, protagonistetako bat da Mintxo Garaikoetxea: narratzailea. "Kantari izatea proposatu zidaten eta onartu nuen. 1993an, Gotainen beste pastoral batean hartu nuen parte musikari lanetan Etxekoparrekin, tuba eta bonbardinoa joaz. Oraingo honetan oso ideia polita iruditu zitzaidan arren, otsailtik orain arte entseguak egiteko igande askotan elkartu behar izatea gogorra egin zait. Bertso gehien zuen papera eman zidaten gainera, narratzailearena, eta hasieran izutu nintzen pentsatuz ea horrenbeste bertso sartuko ote ziren nire buruan.

Joxemiel Bidador oso pertsona berezia izan zen. Harri-garria da ikustea hain gaztea izanda, zer-nolako lana zuen egina. Bizirik jarraituz gero pentsa zenbat gauza gehiago egingen zuen!"

Zer da onena eta txarrena musikari jardueran?

Oso gustura aritzen naiz musika jotzen, eta jendea pozik ikustea oso atsegina dut. Txarrena, ordutegiak, lo gutxi egin beharra, batez ere. Nik fama dut jotzen ahal dudala baita loak hartuta ere. ■



NAFARROA OINEZ

Baztanen xarma berreskuratuko du baso komunalak

Urriaren 18an Baztanen ospatuko da Nafarroa Oinez. "Hama... bortz, ama... bat" du aldarri, Nafarroako 15 ikastolek eta Baztango 15 herriek euskara dutela ama adierazten duena. Jai handi hauek sortzen dituzten kalte ekologikoak orekatzeko eta ikastolari laguntzeko Oinez Basoa proiektuari heldu dio Baztanek ere. Bi zuhaitz mota berezi berreskuratuko ditu baso komunalak: xarma eta lora.

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

2010EAN LANDATU ZEN lehen Oinez Basoa Arbizun, eta neguan (urtarril-otsailean) Baztanen landatuko dutena dagoeneko bosgarren Oinez Basoa izango da. Proiektu bakoitza bere berezitasunak lantzen saiatzen da eta Baztango Oinez Basoaren ezaugarrietako bat da lur komunaletan landatuko dela. Manolo Lizardi Baztango Oinez Basoko lantaldeko kideak azaldu digunez, "Baztan da Euskal Herriko udal zabalena eta eremu horren %80tik goiti komunala da. Horrek erran nahi du baztandar guztiena dela eta lur horien ardura eramaten duena Batzar Nagusia dela. Baso komunalak etekinak ematen baditu,

horiek denendako dira, ez partikular batendako. Batzar Orokorrak ikusten du zertan erabili etekina, baina aunitzetan izaten da birlاندatzeko, bideak garbitzeko eta hainbertze gauza egiteko".

Duela hilabete batzuk, Baztango Batzar Nagusiari tratua proposatu zion Baztango ikastolak: "Orain dela urte pasa, Udalak pinudi bat atera zuen. Udalak badu betebeharrak, ebakuntza hori egiten delarik bost urteren buru derrigor eremu hori birlاندatu egin behar du. Aski toki egokia denez gure proiekturako, eremua guk birlاندatzea proposatu genion". Udalak bi partzela kozkor utzi diz-



Kostaldera begira dago Gainekola eremua (ikus argazkian itsasoa, hondoan), Urdazubirekin mugan. Itsas mailatik 200 metrora dago. Altura apalagatik, hezetasunagatik eta kalitate altuko lurra delako, xarma eta lora zuhaitz espezieentzako eremu oso egokia da.



kie, bien artean 9 hektarea inguru osatzen dute. “Gure asmoa da zuhaitzez bi partzela horiek osorik betetzea” azaldu du Lizardik. Aitortzen du ez dela erronka makala izango: “8.000 inguru zuhaitz sartzen ahal dira. Baztanen 8.000 lagun inguru gara eta ‘bartzandar bat zuhaitz bat’ landatzera iritsi nahi dugu”. Baso komunala izango dela azpimarratu du “Guk landaketa egingen dugu eta behin hori bukatuta, baztandar guztiendako geratuko da. Landatu bakarrik ez, zaindu ere egingo dugu, batez ere lehen borts urteetan, landarea indartsu etor dadin: garbiketa, zainketa, itxirturak konpontzea...”.



URPA autobusak

**22, 28, 31, 55 eta 60
plazakoak**

**Autobus literadunak
Europar zehar ibiltzeko**



Ubilluts auzoa, 55. poligonoa, 9.eraikina-4. • 20140 Andoain
Tel.: 943 305050 Faxa: 943 305060
www.autocaresurpa.com • info@autocaresurpa.com

Bost Oinez Baso, ikasgela

Baztangoa bosgarren Oinez Basoa izango da. Aurreko lau basoetan jada 20.000 zuhaitz inguru landatu dira, eta Baztangoak kopuru hori emendatuko du. Hona baso bakoitzaren ezaugarriak:

- ✓ Arbizun landatu zen lehen basoa, 2010ean. 5.000 zuhaitz landatzeaz gain, babespeko espeziea den igel zaluarentzat (Dalmantina Igela) bi baltsa prestatu dira.
- ✓ Tafallako basoan 2011tik 6.700 zuhaitz landatu dira eta Nafarroako Unibertsitateko agronomoen eskolarekin elkarlanean, lurrian metatutako karbonoa neurtzeko ikerketa martxan da.

✓ 2013an Tuterako Argia ikastolak erriberako basoa landatu zuen. Nafarroako hirugarren hezegune garrantzitsua da. Guneak 120 hegazti-espezie hartzen ditu, horietako 30 uretakoak.

✓ Zangozako zabortege zaharreko lurrian (La Celada parajea) 1.000 landare sartu zituzten iaz. Haziz eta buztinez eginiko nendo-dango bolak ere jaurti zituzten ikasleek, tartean, iazko Argia Egunean egin genituenak. Landare txikiek berreskuratuko dute zabortegeak kutsatutako lurra. Baso jangarri bat ere martxan dute eta ibaiertzean txori etxolak jarri dituzte.

Erramu portugaldarra edo loroa eta karpea edo xarma

Bi zuhaitz mota berezi landatuko ditu Baztango Oinez Basoak. Batetik, karpea, xarma edo pago-lizarra (*carpinus betulus*), Iberiar Penintsula osoan kopuru esanguratsu batean Bortzirietan soilik aurki daiteke, Arantzako mugan eta Igantziko herri lurretan dagoen San Juan Xar baselizaren inguruan eta Bidasoa ibairako pendizetan. Orain dela 150.000 urte baino gehiago, Behe Paleolitoean, ugaria genuen Euskal Herriko basoetan. Eta arras estimatua. Bere egurra zen preziatua, sutarako bezala egurretarako. Egun Europan bada, baina Pirinioetatik behera hor bakarrik geratu da. Horregatik da, gainera, San Juan Xar erreserba naturala.

Bestetik, loroa edo erramu portugaldarra (*prunus lusitanica*). Hau badago Iberiar Penin-



Loroa ezkerrean, eta xarma eskuinean, Baztango Oinez Basoak bizkortuko dituen bi espezieak.




Kalitatea da gure produktuen ezaugarri nagusia!

BISITA EZAZU GURE DENDA

Industrialdea B 7-8 partzela

ABLITAS · Nafarroa

KOSTAPREZIOAN



conservasartesanasmariajesus



www.conservasartesanasmariajesus.com

tsulan, baina Nafarroan eta kopuru dezente batean Baztango txoko batean bakarrik aurkituko duzu: Aritzakungo bailaran. Bi zuhaitz horiek ez dituzte ausaz hautatu: “Txikiak handi’ da Nafarroa Oinezen filosofia, eus-kara ere munduan hizkuntza txikia delako, baina handi egin nahi duguna. Zuhaitzekin gauza bera, bi zuhaitzok jendeak ez ditu eza-gutu ere egiten, eta hemen daukagun altxor bat dira. Ardura hartu behar dugu altxor hori zaintzeko eta espezie horiek bizkortzeko”.

Zu ere egin zaitezke basoaren partaide

Duela urtebete landu zuten ideia, eta orain babesleak bilatzen ari dira. Orain arteko bidearekin pozik da Lizardi: “Enpresek eta erakundeek ongi erantzun dute eta beraz, oinarri bat dagoeneko ziurtatuta daukagu. Baina basoa handia eta ederra izan dadin, herritarren garaia da orain”. Nafarroa Oinez egunera arte dute ekarpenak jasotzeko epea. Internetez erraz jar dezakezue zure alea, nafarroaoinez.eus edo oinezbasoa.eus webguneetan. Jasotzen duten babe-



Manolo Lizardi da aurtengo Nafarroa Oinezeko ekonomia-babesletza arduraduna, eta Baztango Oinez Basoko lantaldeko kidea.

sak esango du zenbat zuhaitz landatuko diren. Zazpi laguneko lantaldea ari da Baztango Oinez Basoa aurrera ateratzen, eta tartean bada basozain eta eskarmendudun jenderik. Bertako loroaren hazia biltzen saiatu direla kontatu digu Lizardik “baina aurtan ez du asko eman eta haztegietatik ekarri beharko dugu”.

Urriaren 18an, basoak basorat

Nafarroa Oinez egunean plastikozko edalontziak erabiltzen dira. Aurtan ere *Basoak basorat* ekimenarekin berrerabilpena bultzatuko dute. “Lau puntu jarriko ditugu, eta jendeak edalontzia bota beharrean puntu horietako batean uzten badu, bi helburu lortuko dira: edalontzi horiek berrerabiltzea, eta edalontzi horren kostua aurrezten dugunez, diru hori Baztango Oinez Basora joatea. Beraz, baso horiek ekarriko dute zuhaitz gehiago landatzea”. Baztango festan basoa eskuan bazabiltza, segituan ezagutuko dituzu bilketa puntuak, adarrez betetako baso bat irudikatuko baitute. Gure basoa izan dadila adar horietako hosto. ■

B A Z T A N

Natura eta Kultura Bizia

BAZTANGO MUSEOA
(Elizondo)

Turismo Bulegoa
(0034) 948 58 15 17

Baztango Udala

Baztango turismo webgunea
www.baztan.info



DANI BLANCO

Mikel Zurbano



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Gizarte ekonomiaz hausnartzen

EUSKAL HERRIAN GIZARTE EKONOMIAK ibilbide luzea eta esanguratsua du. Jakina da gurean lankidetzak ekonomikorako ekimenak ugariak direla ekoizpen eta banaketa eremuan. Zorionez, ezagutzaren arlora ere iristen ari da elkarrekin loturak ehuntzeko oldea. Izan ere, urriaren 15ean eta 16an EHUren Gipuzkoako Campusean Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lehen kongresu kooperatiboa garatuko da. *Eredu kooperatiboa egungo erronken aurrean* goiburua duen topaketak gizarte ekonomian diharduten adituak, irakasleak, eragileak eta interesdunak batuko ditu bestelako ekonomia eraikitzekeko estrategien eta ekimenen inguruan hausnartu eta oinarriak ipintzeko.

Aspalditik bistaratzen ari garen globalizazioaren ajeak sendaezinak dira. Beroketa globala, genero desberdintasunak, desberdintasun sozialak eta giza bazterkeria hedatzen ari dira nonahi. Ekonomiaren egungo eredu liberalak, muturreko lehia eta merkatuzaletasuna dakarrena, bistako mugak ditu jende arruntaren beharrei erantzuteko


Aspalditik bistaratzen ari garen globalizazioaren ajeak sendaezinak dira. Beroketa globala, genero desberdintasunak, desberdintasun sozialak eta giza bazterkeria hedatzen ari dira nonahi. Ekonomiaren egungo eredu liberalak, muturreko lehia eta merkatuzaletasuna dakarrena, bistako mugak ditu jende arruntaren beharrei erantzuteko. European nozitzen ari garen krisiak erakusten du gaurko ekonomia garapenaren paradigmaren ezintasuna jendearen eta planetaren bidezko etorkizuna bermatzeko. Paradigma ekonomikoaren aldaketaren beharra gero eta ozena entzuten da, baita arlo akademikoan ere. Ekonomian baloreak berreskuratzea ezinbestekoa da etorkizun iraunkorra eta justuziazkoa nahi badugu.

Ekonomian etika berreskuratzekeko konpromisoa duten aktore eta jende

ugari dago eta horren isla da gizarte ekonomia. Arazoak arazo, batez ere, kooperatibak ditugu ezagun zeregin horretan, baina fundazioak, entitate solidarioak, insertzio sozialerako erakundeak eta bestelako erakunde sozialak mozkinen besteko helburuak nabarmentzen dituzte beren jardueretan. Merkatu globala eta malguaren garaian irauteko, beharrezkoa duten errentagarritasunaren logika eta bokazio soziala uztartzean datza gizarte ekonomiako erakundeentzat bere erronka nagusia.

Kongresuko eztabaida eta aztergai nagusia oreka horri nola heldu izango da, hots, egungo kapitalismo globalak dituen mugak aintzat hartuta gizarte ekonomiaren espazio propioa eraikitzeke bidea nola urratu, bestelako ekonomia sortze bidean. Perspektiba anitzetik proposatzen da hausnarketa hori gauzatzeko. Ondoko gaien inguruan mamituko da topaketa. Ekonomiaren eta gizarte ekonomiaren arteko erlazioaren ildotik, pertsona gunea izanik, bestelako ekonomia gauzatzeko oinarriak aztertuko dira, eta halaber, krisiak printzipio kooperatiboetan duen eragina.

Beste atal batean gizarte ekonomia politikak publikoetan duen presentzia analitzatzeko aukera izango da. Merkaturia, arlo publikoa eta gizarte ekonomia-aren arteko loturetatik abiatuta ekonomia eta gizarte eraldatzeko bidean, publikoaren eta sozialaren zeregina eta posizioa argitzea premiazkoa da. Gizarte ekonomian berrikuntzak duen esanahia ere aztergai izango da. Jakina, berrikuntza sozialaren bidea hobesten da, zentzu komunitario batez hornitu eta perspektiba sozialaren garrantzia berrikuntza prozesuetan ere txertatzen dela azpimarratuko da hemen. Gainera, enpresa sektoreen eta entitateen nazioartekotze prozesuan interkooperazioak duen garrantzia ere jomuga analitikoan izango da. Finean, gizarte ekonomiaren inguruko hausnarketa ekonomia trantsizioa irudikatzeke tresna gehigarria da, etorkizuneko gizarte eta ekonomia eraikitzeke ezinbesteko hazia. ■





DANI BLANCO

Aingeru Epaltza

IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA ♦

Armairutik ateratzen

LANKIDEAK KAFE ORDUAN MINTZO. Halakori euskaraz egin dio betidanik erdalduntzat jotakoak. Horrelakori euskaraz erantzun diote ez dakit nongo enpresan edo badakit nongo dendan. Honelakori leihatilaren gibelean “adios” agurtzen zuenak “agur” edo “adio” egin dio bat-batean.

Nik ere badut zer kontatua. Lehengo asteburuan, fabore eske joan nintzaion herrian dugun etxearen ondoko auzoari. Atsegina da, baina gutitan jotzen dut harengana. Euskalduna da. Euskaraz egiten du seme-alabekin. Hala ere nirekin, auskalo zergatik, erdarara egiten du ihes, mintzatzen natzaion aldiro. Lehengo egunean, euskaraz ihardetsi zidan lehen aldiz 12 urtean.

Eta mikrotik makroagora. Joan den astean eman ziren aditzera Iruñeko Hizkuntza Eskolako aurre-matrikulazio datuak. Pentsako titularrei kasu egitera, aurten ere ez du etenik izan 2012tik hona matrikuletan urtez urte sumatzen den beherakadak. Ingelesa, beheiti. Frantsesa, beheiti. Orobat beheiti alemana edo italiara. Salbuespen bakarra, euskara. Ikastetxe horretan euskarazko matrikulazioek goiti egin dute lehen hainbat urtetan.

Eskoletako hurrengo matrikulazio kanpainan gertatuko denari begira jarria da bat baino gehiago. Ez

bakarrik D ereduaren gorakada ikusi nahi dutenen artean.

Zirtzilkeriak, beharbada, iraultza aztarrenik ez dakartzatenak. Adierazgarriak, ordea. Belarria erne eta gogoan belztu gabe duen nafar euskaldunari antzeko pasadizoak aditzen zaizkio azken hilabeteetatik hona, batez ere Iruñerrian bizi bada. Mirari tiki horiek ez dira hutsetik heldu. Maiazaren 16ko hauteskundeetako emaitzen lurrikararen errepika xumeak.

Aspaldi errana da: haizeak nora gogoak hara. Eta haize berria dabil aspaldi honetan behialako erresuman. Nafarroan, jende mota bat, lotsak, beldurrak, axolagabekeriak edo erosokeriak bultzatuta, armairuan sarturik egon da, urte aunitzetan, euskaltasunari edo euskaltzaletasunari dagokionez. Jende hori armairutik ateratzen ari da orain, haizeak alde jotzen duenean.

“Aldaketa non da?” galdegin izan duenik bada jadanik bazterretan. Hori, Uxue Barkosek lehendakari bi hilabete egin gabe. Jende presatia, inondik ere. Oraino ez dira etorri gure ametsetako dekretu edo lege berriak. Horiek ere beharko ditugu. Bitartean, dekretu eta lege berriak gabe, aldaketa gertatzen ari da Nafarroan. ■

Nafarroan jende mota bat, lotsak edo erosokeriak bultzatuta, armairuan sarturik egon da euskaltzaletasunari dagokionez. Jende hori armairutik ateratzen ari da orain

DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

(D)iruzur

MASKARATURIK AITZINATZEN DIRA. Isilkamisilka.

Mesfidatu behar da lanaren munduko heroi gisa oilartzen zaizkigun solaskideez: ez dute opor eskubiderik, astean hirurogei ordu egiten dituzte, ez dira sekula eri eta laidoztatzen gaituzte, beraien gustuko, alferrak garelako. Sugandila-larru makroniara karrakatzea aski da, den mendrena, ohartzeko, hatsa gezur ari direla, aitzinean daukatena apaltzen eta mistifikatzen.

Lanaren balioa goratzen eta morala egiten digutenek ardura aberastasuna herentziaz erdietsia dute, txapeldun distiratsuenak dopatuak dabilta eta ospe handiko

Volkswagen kotxe alemaniar ustez garbien material informatikoa trafikatu da. Egitura neoliberalak haro zerbait duen oro erabiltzen du, zuzen ala oker, langile atzeratuek soka laxatu dezaten: igandeetako pausa eguna, lanaren kodigoaren geriza, ordutegiaren finkotasuna.

Egiatzko gerra baten minean gaude, baina soldadu armatuez aparte, hemen, gudariak, ministroak dira, zientifismoaren gerizpean datozkigun ekonomialariak, kazetariak, umorista aho-zabalak, editorialista oro-jakitunak.

Ez dute amore emanen. Iruzurrak sosegatzen ditu. ■



Pako Sudupe

♦ IDAZLEA

Nafarroak historia politikorik bai?

BAZEN GARAIA: Rodezno Kondearen plaza ez, baizik eta Serapio Espartzaren plaza izango da aurrerantzean. Hango kriptan dira oraindik Euskal Herrian kamino-bazterretan fusilatutako sei mila ingururen erantzule nagusiaren,—Bilbo suntsitu nahi zuen non-bait Molak, baina jeneral alemanari gehitxo iruditu eta Gernikarekin kontentatu!—, eta José Sanjurjo Espainiako II. Errepublikaren aurkako jeneral kolpistaren gorpuzkiak.

Barne-turismoa eginez, Iruñeko Nafarroako Museoan sartu-irten bat egin dugu. Ez dut esango Nafarroa Garaia eta Beherearen historia politikoren bilakaera bertan islatua ikustea espero nuenik margolan eta gainerako arte-euskarrietan, baina esperantza txikiren bat banuen halere, handik edo hemendik Nafarroaren historia politikoren arrastorik aurkituko nuela.

Barne-turismoa eginez, Iruñeko Nafarroako Museoan sartu-irten bat egin dugu. Ez dut esango Nafarroa Garaia eta Beherearen historia politikoren bilakaera bertan islatua ikustea espero nuenik margolan eta gainerako arte-euskarrietan, baina esperantza txikiren bat banuen halere, handik edo hemendik Nafarroaren historia politikoren arrastorik aurkituko nuela

Noizkoa? Erresuma independente izan zeneko zazpi mendeetako aztarnaren bat; haren galeran izandako gudua, agian, edota han edo hemen zirtaturik XIX. mendeko karlistaldiei buruzkoren bat, haiek lurraldean hainbesteko garrantzia izan zutela gogoan harturik; ez, ez nuen egia esan, espero Raimundo Garcia *Diario de Navarra*-ren zuzendari famatuak Emilio Mola jeneralaren esaneko zintzo eta leial, Sanjurjo jeneral eta beste hainbat matxinada zale tarteko —Martinez Berasain, Baleztina anaiak eta Luis Arellano, erreketen nafarren buruzagiak, edota Tomás Dominguez Arevalo, Rodeznoko kondea...—, josi zuten Errepublikaren aurkako konspirazioaren berririk.

Ez, ez da horrelakorik Nafarroako Museoan. Erromatar mosaiko, katedraleko kapitela, jaun boteretsuen jauregietatik eskuratutako margolan eta eskulturak, eta hango eta hemengo elizetako artelan aski maiztuak gehienetan, eta museo guztietan bezalatsu, margolan bat gailen, Goya pintoreak San Adrian markesari egindako erretratu ederra... Ezer handirik ez, Espainiako beste edozein hiritan aurki dezakezun lurralde museotatik bereizten duenik!

Orreagan, Leiren, Amaiurren eta berriki Sartagudan, badira Nafarroaren historia politikoren gaineko aztarnak; bibliografia aski zabala bai, azken urteotan nafar ikuspegitik hagitz aberastua, historiazaileen bazka, gutxi batzuen ikasbide, baina horixe, gutxi batzuen hezigarri, baina eskolaumeentzat eta helduentzat prestatutako historia-museo dibulgatiborik?

Izen-aldaketa beharrezko bezain itxaropentsuari gure historiaren ezagutzak jarraituko balio, orduan bai aldaketa sakona, izen-aldaketa batere gutxietsi gabe! ■



GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2015



www.bertsozale.eus

ARRASATE	Urriak 10	ANDOAIN	Urriak 11
Amaia antzokia, 17:30		Bastero kulturunea, 17:30	
Eneritz Artetxe Eizagirre Haritz Casabañ Píkabea Egoitz Eizagirre Aduriz Aratz Igartzabal Bidegain Iñaki Gurrutxaga Zubimendi Felix Zubia Olaskoaga		Ibai Esoain Arruti Gemma Urteaga Garmendia Jokin Uranga Isuskiza Antton Fernandez Lasa Asier Azpiroz Iztueta Unai Gaztelumendi Arandia	
Sarrerak www.bertsosarrerak.eus webgunean edo egun berean leihatlan.			
Final zortzirenak			
			Laguntzailea: 

Pablo Sastre

IDAZLEA ♦



DANI BLANCO

Gizona ez da emakume hiltzen

ESAN BAZUEN, ESAN ZUEN, Parisko Simonek, emakumea ez dela emakume jaiotzen!

Irakurtzen dugu Lizeoko lehen mailako *Sciences de la vie et de la terre* liburuan (*merci*, Nancy Huston): “Ez gara gizon edo emakume jaiotzen; norberaren hautua da, bata izatea edo bestea”.

Eta, esan du norbaitek irratian: “Sexua norberarena da. Giza-espeziean ez da sexu bi”.

Sexu bi ez? –mutur mozka, nik–. Arrak eta emeak: bi besterik ez, geure portamenari buruz aurre-disponitzen gaituztenak; noski sozietateak edo norberak moldatzen ahal ditu disposizio horiek: oso landuak dira gure sexu-identitateak.

“Berezko portamena, *tu parles!* Dena da fabrikatua! Generoak esplikatzen du guztia!”.

“Igualdaderik ez den bitartean, tratu txarrak izanen dira”. Igualdadea: zer esan nahi da? Tratu justuagoa? Gizonak etxe aldeko lanetan gehiago (ez dirudi inoren lehentasunetarik denik) eta emakumeak kanpo-lanetan gehiago aritzea (bera bai, askoren lehentasuna)?

INTERESANTEA DA SEXUA ETA GENEROA BEREIZTEA. Generoak matizatu, finkatu, areagotu, gozatu egiten du sexu-diferentzia.

Sexu-diferentziatarik: gizonok, zenbait aldiz, mina izaten dugu urdail aldean, ezin larru jorik –antza emakumeek bestela bizi dute gauza–.

Haratago: sexu-diferentzia basikoen ondorioa izaten ahal da emakume gutxi bide-peoitzan ari izatea, edo preso gehienak gizonak izatea –arlu horietan, eta beharrik, inork ez du parekotasuna defenditzen–.

Orobat, sexu-diferentzia basikoen (basikoak, baina premia landu beharrekoen!) ondorioa izaten ahal da, euren jolasetan mutil koskor gehienek armak, eta neska koskor gehienek panpinak nahiago izatea.

Bidezkoa da gure haurrak iguldadean hazi nahi izatea. Bidegabea da, aldiz, biologiarene indiferentzian

hazi nahi izatea –berdinen arteko diferentzian haz litezkeelarik alabaina–.

Iguldadearen kontrakoa ez da diferentzia, desiguldadea baizik. Iguldadeak ez ditu diferentziak ukatzen; justiziaren aurrean edo soldatetan edo trantuan, injustizia-eza esan nahi du.

EKIBOKATUA EGONEN NAIZ BAINA, emakume baten ipurdiari jarraitzen dion gizon-begiradaren atzean (barrabil, prostata, zakil) sexu-aparatu bat ikusten dut nik, eta, emakumearen eder agertu nahiaren atzean, umetoki bat ikusten dut –eder agertu nahia ez da milurteetako sexismoaren ondorio; sexismoak, zinemak edo kosmetikako publizitateak haizematu, itxu-ragabetu, degradatu egiten dute baina–.

Sexua eta generoa bereizten saiatzen garenez gero, saia gaitzke, bidenabar, bereizten berezko eder agertu nahia: emakume baten *garboak* adierazi dezakeena, eta ezarritakoa: emakume baten ileen eta zimurren kontrako ekinaldiak adierazi dezakeena.

Sexu-diferentziak ezkutuzten dituen sozietate batean gara, aldi berean, edertasunaren eta pornografiaren industriei esker, diferentzia horiek ero-moduan handitzen dituen.

GURE AMATXIREN PANPINA: bere aitak egin ziona, trapuzkoa, beretzat lagun on, edo haur, edo gure amatxi berak nahi zuena izan zitekeena.

Harrezkero, panpina suerte bi: haurraren gan “ama instintua” pizten duena, bata, eta *Barbie*, bestea, “sedukzio instintua” pizten duena. Biak ala biak dira, azken batean, alienanteak. Zernahi gisa, mendebaldeak bigarrena hautatu du; bizi-zikloan, neska koskor panpinzaleen erdutako, aldi bat hautatu du: emakumea, eder eta desiragarria izanik, oraindik ama ez den aldia.

Eder eta desiragarria: partikulazki, gizonen begietara.

Gizonen begiradara sakrifikatzen den emakume bat ikus daiteke, emakume ilefobo bakoitzaren atzean.

Gizonen desiretara plegatzen den emakume bat, puta bakoitzaren atzean.

ETA EMAKUMEEN BEGIRADAK? Haien izateko, elkarrekin izateko, haien nahiak, gauzak egiteko manerak... ez dira, inondik ere, berdintasunari edo desiragarri buruzko eztabaidetan agertzen.

Emakumeen izatea gutxietsia den, eta, inork egiten dituela ere, etxe aldeko lanak, hurrekin egotea barne, desestimatuak diren bitartean... ez du balio berdintasunaz ari izatea.

Emakumeen begirada *diferenteak* behar ditugu –batez ere, gizonok–.

“IGUALDADERIK EZ DEN BITARTEAN, tratu txarrak izanen dira”. Igualdadea: zer esan nahi da? Tratu justoa goa? Gizonak etxe aldeko lanetan gehiago (ez dirudi inoren lehenasunetik denik) eta emakumeak kanpo-lanetan gehiago aritzea (bera bai, askoren lehenasuna)?

Nik ulertzen dut: “Arrak eta emeak dauden bitartean, tratu txarrak izanen dira”. Harro egin du balantzea ministroak: “Hamar urte hauetan (Espainian genero-biolentziari buruzko legea dekretatu zenetik) milioi bat baino gehiago gizon izan da tratu txarrenatik prozesatua”.

Nik ulertzen dut: “Gizonek tratu txarrak ematen dituzte”. Tratu txarrak ematea gizon izateari lotuta dago; estatuak, zorionez, zuzenduko duen akatsa.

Ez dut nik ukatuko (bestenaz, inork ez du argi eta garbi deklaritzen) gizonen biolentzia biologiar lotuta egon daitekeenik; alabaina: ez ote du, biolentzia horrek sozietatean gertatzen ari denarekin zerbait loturarik? Haur denborako tratu txarrekin? –tratu txarrak: kolpeak eta abarrak ez ezik, *abandono lasterrak*: eskoletan, pantailetan, inon ere abandonatutako haurrak; nondik nora ez handian hazten direnak...–

Zertako galdezka hasi, badugularik soluzioa: kartzela.

IGUALDADEAREN IDEIA, ez da jende naturalaren ideia; aspaldi mendebaldeko gizon aberatsek aldarrikatua, gizon haien aldarriari begira jarri ditu pobreak, emakumeak... Igualdadearen ideiak sorrarazi ditu sexuen arteko gatazka berriak.

Euskaraz, bereizten ahal genuke: berdintasuna (etxe aldekoa: berdintasuna diferentzian) eta igualdadea (“gizon aberatsen igualak” izateko nahia).

Igualdadearen bidetik heldu da parekotasuna: balizko problema bat konpontzeko, emakume batzuek botereguneetan toki bat izan dezaten instituzioek sortutako mekanismoa. ■

* Pablo Sastrek Erredakziora bidalitako artikulua.

SORMEN LEHIAKETA
5. edizioa
AZAROAREN 15a ARTE

irudimena
www.irudimena.eus

AZKUE FUNDazioA **eke-icb** **dantzan**
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA INSTITUT CULTUREL BASQUE

ERDIKO KAIERA

JOXEMIEL BIDADOR PASTORALA

Lagunaren omenez, Iruñeko euskaldunen gorazarrez

“Inork merezi badu pastoral bat Iruñean, Joxemi da”. Esaldiak denbora zeraman Joxemiel Bidador zenaren lagun buruetan. Aurten gorpuztu da. Urriaren 10ean idazle eta ikerlariaren omenez zuberotar estiloan egingo den herri antzerkiak Hiri Buruzagiko euskaldun guztiei ere egin nahi die gorazarre.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

Joxemiel Bidador idazle, ikerlari eta dantzaria, San Lorenzoko dantzateen arrokekin jantzirik.



PATXI LARRIONEK UTZIA

MARTXA ONEAN DOAZ *Joxemiel Bidador, Iruñeko euskaldunak* pastoralaren prestakuntzak. Urriaren 10eko 17:00etan eguraldia lagun Iruñeko Burgoen plazan ikusi ahalko den emanaldia baino astebete lehenago egin dugu solas Patxi Larrionekin, eta azaldu digunez, pastoralaren liburuxkak estreinaldirako agortuta egongo direla aurreikusten dute –horien salmenta izango da ikuskizuna finantzatzeko bide nagusia–. Bidadorren laguna zen Larrion, egitasmo honetan parte hartu duten beste asko bezala, eta bere esanetan aspaldiko asmo bati forma eman diote ikuskizunaren bidez.

“Hau berez, ia Joxemi hil baino lehen sortu zen” dio, 2010eko otsailaren 26a gogora ekarriz. Ostiral beltza Nafarroako euskal kulturarentzat: Mañuetako idazle eta ikertzaileak buruko isuria izan zuen eta larri zegoen. Lur jota zeuden lagunak gerta zitekeenaren beldurrez, eta batzuk elkartu egin ziren barrenak husteko, goizeko hiruak arte luzatu zen solasaldian. Bidadorren *Materiales para una historia de la literatura vasca en Navarra* liburua izan zuten eskuetan. Zer edo zer egin beharra zegoen, liburu haren egileak merezi zuen aitortza berezia.

Hurrengo asteartean hil zen Bidador, otsailaren 2an. Aste berean Artikako kultur etxea haren lagunez bete zuen omenaldi zibil batek. “Hartan parte hartu genuen gehienok parte hartzen dugu pastoraleari ere, arizale edo laguntzaile gisa”.

Pertsona polifazetikoa nola taularatu

Urteotan beste omenaldi batzuk ere egin zaizkio Bidadorri, baina honek baditu zenbait berezitasun: Iruñean inoiz ekoiztu den lehenbiziko pastoral da eta 2014ko *Gerezien denboraren* atzetik, Zuberoatik kanpo egiten den bigarrena.

Beste ezohiko pastoral batek izan du eragirik gaur mintzagai duguna abian jartzerako orduan: *Ederlezi*, Mixel Etxekoparrek idatzi eta Nicole Lougarotek zuzendu zuen euskal ijitoei buruzko ikuskizuna Iruñean eskaini zuten iaz, Duguna dantza taldeak, Zaldiko Maldikok, Euskaldunon Biltokik eta Karrikirik antolatuta. Eta amaitu ondorengo afaritan, Bidadorren lagun berriketa berriz iritsi zen omenaldiaren gaira. Oraingoan bai, formatua ere argi zegoen: “2014ko udarako Jon Alonsok idatzia zuen zirriborroa”, dio Larrionek.

Prosan zailduagoa dagoen idazle batentzat pastoral bat idazteza zer den galdetu diogu Alonsori, baina badirudi gustuko tokian alda-

Beste ezohiko pastoral batek izan du eragina Iruñekoaren erditzean: euskal ijitoei buruzko Ederlezi Iruñean jokatu ondoren animatu ziren Bidadorren lagunak

parik ez duela aurkitu: “Zortziko bertsoak dira eta pareetan errima daukate, hartara jarriz gero egin egiten duzu”, esplikatu du. “Beste pastoral batzuetako testuak ikusi ditut eta, adibidez, aitzin pheredikiko lehen bertseta hitzez hitz hartu dut beste obra batetik. Horrelako keinuak badaude: koplak modukoak direnez gero, Arestiren bat ere sartu dut”.

Testuaren beste zailtasuna, Bidadorren aurpegi ugariak erakustea. Idazlea, filologoa, ikertzailea, dantzaria, irakaslea, euskaltzalea, Baternaingo alkatea, bi alabaren aita... Bizi izan zen 39 urteetan nekazina izan zen, hain

ibilbide oparoa bi ordu inguruko lan batean jasotzea ia ezinezkoa da. Eta Bidadorren heriotza memorian hurbil egonda, egokitzapenak ere egin dituzte. “Pastoraletan sujetak aspaldiko pertsonaia izaten da eta norbaitek antzezten du. Guk ez genuen nahi norbaitek Joxemiren papera jokatzetik, arrisku handia zegoen, bai ikuslearentzat, baita hori egingo zuen antzezlearentzat ere; konpromiso handiegiko lana izango zen. Azken finean, duela bost urte baino ez zen gertatu Joxemirena”.

Zuzenean antzeztu ordez, narratzaile bat edukiko du pastoralak, aldizkari honetako Pertsonaia atalean Reyes Ilintxetak elkarrizketatu duen Mintxo Garaikoetxea. Beraren bitartez, zeharka kontatuko dira Bidadorren askotariko alderdiak. “Gauza batzuk kanpoan geratu dira hala ere. Batez ere sortzaile, literatur kritikari eta dantzari lanek ematen diote haria”.

Pastoral mañueteroa

MAÑUETA karrikan gurasok zeukaten dendan makina bat ordu egina zen Bidador. Bere omenezko pastoralak ere hartu du inguru horretako kutsua. Izan ere, bada Iruñean aspalditik erabiltzen den espresio bat, “mañuetero”, karrika horretako frontoiko apustu-giroarekin zerikusia duena. “Mañuetero” jokalaria tranpatia izan zitekeen; garaiaren arabera, azeria, pertsona bizia ere bai. Pastoralak ere “mañuetero” izango dela aurreratu dute. Bihurria alegia, baina Mañuetakoak bakarrik izan daitezkeen eran.



Ezohiko pastoralala

Aritz Ibañez eta Ihitz Iriart ardura-tu dira obraren zuzendaritza artistikoaz eta hasieratik ikusi zuten ez zuela zentzu handirik Zuberoako pastoral bat bere horretan Iruñean egiteak. Baina, era berean, antze-lan mota honek baditu istorio-kontatzeko ezaugarri interesgarriak, diziplina artistikoak uztartzeko aukera adibidez. Oinarri-oinarrizko elementuak hartu dituzte urriaren 10eko ikuskizunerako beraz, Ibañezek azaldu duenez. “Bi talde antagonikoren artean gertatzen den istorioa, koblaka, eta tartekatuz kantua, antzerkia, dantza eta musika: hori dago gure pastoral honen funtsean”.

Zintzoen eta gaiztoen mundu dualista aurkeztuko zaigu, hori bai, normalean egin ohi denaren guttiz kontrara. “Pastoraletan *khirixtiak* izaten dira onak eta *tiirkak* gaiztoak. Gure kasuan, Nafarroan orain arte agintean egon direnak oso kristauak omen direnez [barre egin du], erabaki genuen gaiztoak kristauak izanen zirela; eta euskaldunok berriz, *tiirkak*”. Beste zenbait “lege” ere hautsi dituzte, adibidez, agertokian sartzeko eta ateratzeko modu batzuk; edo artzainak eta aingeruak derrigorrez agertu beharra. Kontatzen den istorioa Hiri Buruzagiko euskaldunen imaginarioa egokitzeak asmoz hartu dituzte erabakiok. “Batzuentzat agian sakrilegioa izango da, baina istorio honek ez du halakoen beharrik, eta beraz ez ditugu sartu”.

Dantzei dagokienez, neurri berdin-nean berrikuntzak eta pastoraletan ohikoak direnak: satan dantzak, adibidez, Zuberoako maneran plazaratuko dituzte, “berdin-berdin”. Baina horiez gain, Bidador San Lorenzoko danzanteetan ibili zenez, haiek ere gonbidatu dituzte jelkhaldi batean. Eta Tuterako erraldoiak ere bai: “Bals bat dantzatuko dute, bere garaian Tuterako gaiteroek Joxemieli eskaini ziotena”.

Iruñeko euskaldunei gorazarre, aldaketa giroan

Lau kantuk osatzen dute pastoralaren alderdi musikala. Jean-Louis Davanten hitzak ditu batek eta Mixel Etxekoparren doinua; propio sortu du Etxekoparrek beste bat, hitz eta doinu, eta gari koloreko Euskal Herriaren bindikazioa dela diote entzun ahal izan dutenek; proiektu honen bultzatzaile nagusien



PATXI LARRIONEK UTZIA

Iaz Baionan aurkeztu zen Gerezien denboraren ondoren, hau izango da Zuberoatik kanpo ekoiztuko den bigarren pastoralala.

Ehun lagun inguru aritu dira pastoralala prestatzen, denak euskaldunak. Duela zenbait urte ezinezkoa zirudiena lortu du ikuskizun honen prozesuak

artearen dagoen Kike Diez de Ultzurrunen letra bati Ermuako doinua erantsi diote hirugarren piezarako; eta Etxamendi eta Larralderen *Otsagabian* jotari hitz berriak jarri dizkio Fernando Reyk laugarren abestian.

Parte hartzaile askoren laguntzarekin lortuko dute pastoralala estreinatzea. Eta badirudi partaideek beren burua ispiluaren aurrean ere jarriko dutela, ikuskizunaren tituluan bertan igartzten baita Bidadorrez gain, urtetan Iruñeko euskalgintzan aritu diren lagunak ere omendu nahi dituztela. Haiei esker gertatzen ari da Nafarroako “beste” aldaketa, erakundeetan agitu denarekin lehiatu dezakeena, titularretan ez bada, bai behintzat eguneroko bizitzan eta, zalantzarik gabe, ikuskizun honen prozesuan. “Ehun lagun inguru aritu gara honetan, eta denak gara euskaldunak”, azaldu du Larrionek; baita puntualizatu ere: “Ez ari-zale eta musikariak bakarrik, zurgina, igeltseroa eta abar ere bai”. Hasi eta buka euskaraz, duela zenbait urte ezinezkoa zena gertatzen ari da.

Bidadorrek Mariano Mendigatxa bidankoztarraren sindromeaz idatzitako poema etortzen da gogora hori ikusirik: ez mohikano, ez azken euskaldun. Mendigatxak eta Iruñeko euskaldunak ardo bat eskatzen du. Edo bi, gonbidatuko lukeenak konpainia ona eskainiko balio. Urriaren 10ean izango da horrelako tratuetarako aukerarik. ■

EMAN EUSKARA ELKARRI

Probatuz gero gustatuko zaizu

Egin dezakegu gure artean, lagunekin, kalean edo parkean

Zergatik ez hasi jolas honekin?
Barruan duzun hori ez utzi geldirik!

JARRI

MINGAINA

DANTZAN

barruan duzun
hori ez utzi
geldirik!

Mintzalagunean gustura egingo
nuke zurekin

Sustatzaileak



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua

Babesleak



HEO



URUMEA EUSKALTEGIA

ERDIKO KAIERA

ANDER LIPUS

«Sail Ofizialean euskarazko bi film urtero, zergatik ez?»

Amama filmaren aurkezpen lanak eginda, antzezlan berria prestatzen ari dela hartu gaitu Ander Lipusek Kultur Leioan, Artedrama plataformaren egoitzan. Xabierren papera egin du Asier Altunaren filmean eta, aitortu digunez, zineman lan egitea arrotza ez bazaio ere, berarentzat gauza berria izan da.

| MYRIAM GARZIA |

OHOLTZA GAINEKO lanagatik baita ezagunagoa Lipus. Berak zuzentzen duen Huts Teatro taldearen *Etxekoak* lan berriaren entseguetan buru-belarri sartuta dabil orain. Datorren azaroaren 1ean Luhusoko (Lapurdi) Harri Xuri aretoan estreinatuko da.

Nola agertu zen Asier Altunarekin Amama filmean lan egiteko aukera?

Garrantzi handia ematen diet pertsoneri, nork eskatzen didan lan egiteko. Asier Altunarekin lan egin nuen lehenago lagin batean, *Bertsolari* dokumentalean, eta bere lan egiteko modua ezagutzen nuen; aurretiaz bazegoen halako *feeling* bat. Uste dut berak deitu zidala nire antzerkia maite zuelako, antzerkian lan egiten ikusi ninduelako eta gustuko zuelako. Ez nintzen inolako kastinetara joan. Xabi pertsonaia baserri giroko familia baten seme nagusia da, baserria utzi eta herrira joan dena, eta familia barruan alfer fama duena. Asierrek bilatzen zuen zama emozional eta sinbolikoari kontrapisua egiten dion pertsonaia da.

Baduzu antzekotasunik Xabierrekin, zure pertsonaiarekin?

Bai, badut. Ni ere baserri giroan hazia naiz, belarra moztu beharra edota gurdia erabiltzea zer den badakit... Txikitako oroitzapenak dira. Xabi bezala, ni ere hiritartu naiz. Hala ere, egungo baserriko lana ez da lehengoa. Egun inor ez da bizi baserritik, ez Euskal Herrian eta ez munduan, esango nuke. Baserria galtzen ari den gauza da. Horregatik da esanguratsua filma.

Hitz gutxiko pelikula izanda, dramatizazio lanean antzerkiaren lengoia baliatu duzu?



Lipus, Donostiako Zinemaldian *Amama* aurkeztu zen egunean.

“Berri pozgarria da Amama izaten ari den oihartzuna, baina ez da nahikoa, euskarazko film gehiago egin beharko lirateke”

Nik faltan sumatu dut testu gehiago, baina ulertu dut Asierrek nahi zuena ere. Bere imaginarioan duen mundua kontatu nahi izan du, eta ezaugarrietako bat da oso bisuala den zerbait egitea. Zuzentzeko moduan ikusi da hori. Maitua da horretan, filma ikustean nabari da irudiak duen indarra. Irudiaren barruan, nola ez, aktore lana sartzen da, baina zinearen eta antzerkiaren hizkuntzek ez dute zerikusirik, nahiz eta biak antzezpena izan. Zinea neurritsuagoa da.

Grazia egiten zidan zinean zurrumurrutan hitz egiten dela; aldiz antzerkian –are gehiago nire antzerkian– oso ozen. Zinean txikia dena, antzerkian handi egin behar duzu. Txikitik horretan lan egiteko beharrezko izan

dut Asierren lana. Eta ez berea bakarrik, zuzendaritzan laguntzaile izan duen Telmo Esnalek ere badu bere ardura, bikote berezia osatzen dute.

Euskal zinea agerikoagoa al da horrelako filmei esker?

Berri pozgarriak dira Zinemaldian aurkeztu izana eta izan duen oihartzuna, baina nik uste ez dela nahikoa, euskarazko film gehiago egin beharko liratekeela. Badira hainbat profesional horretarako prestatuta. Hau zerbaiten hazia izatea nahi nuke. Zergatik ez urtero Sail Ofizialean euskarazko bi film?

Hala ere, mundu hau apur bat berria egiten zait. Gu teatroan publiko berria egiten ari gara, zuzeneko da... Teatroa ezin da deskargatu [barre egin du]. Gurea ikustera etorri beharra dago antzokira, ez dago besterik. Oso gauza desberdina zinearekin alderatuz gero: zu zeu izan zaitezke egin duzun lanaren ikusle, sentsazio bitxia da. Eta ez dira bakarrik egiteko manierak, antzerkiaren eta zinearen publikoak eta merkatuak desberdinak dira.

Antzerkiari dagokionez, ez zara geldirik gertzen diren horietakoa. *Etxekoak* antzezlanaren azken entseguetan ari zarete Huts Teatrokoak. Bizipen pertsonal batetik abiatu dut antzezlan. Kubatar batekin maitemindu nintzen eta berarekin ezkondu behar izan nuen hona etorri ahal izan zedin. Izugarritzko papeleoa egin behar izan nuen, diru asko gastatu, kontsulatura joan, elkarrizketak egin... Antzezlan nik bizi izandakoari buruzko gogoeta da. Jon Gerediagari eskatu nion zerbait idazteko istorio hau abiapuntu hartuta. Hiru urteko sormen prozesua izan da eta orain azken txanpan gaude.

Istorioak kontatzen du nola Maggi Mamadurekin maitemintzen den, afrikarra eta beltza bera; eta Maggik etxean kontatzen du Mamadurekin ezkondu behar duela hura ekarrarazteko. Familiak hori nola hartzen duen eta hortik aurrera egin beharreko lan guztiak azaltzen ditu. Maika Etxekoparrek jokutzen du Maggiren pertsonaia, haren amamarena Kristiane Etxaluzek; eta bi osaba ere badaude, bata tontoa, Goio (Jabi Barandiaran) eta bestea neurotikoa, Imanol (ni).

Familia berezi horri esker hainbat gauzaz hitz egin nahi dut: identitatea, immigrazioa, zer den kanpoko, zer etxekoa... Bizi izan nituen zenbait gauza daude islatuta, gustuko dut-eta lan egitea niri benetan gertatutako gauzekin.

“Zerbait intimoa kontatu nahi dugu *Etxekoak* antzezlanean, baina politikoa ere bai. Nire obrak beti dira politikoa”



Etxekoak du izena Huts Teatroaren antzezlan berriak. Historia pertsonala itxuraz, gure gizarteaz asko dioena ordea.

Ez da Jon Gerediagarekin lan egiten duzun lehen aldia, Mina Espazioaren eta Antzerkiola Imaginarioaren sortzaileetako bat izan zen zurekin batera. Orduan berak idazten zituen antzezlan gehienak.

Bere idazkera asko gustatzen zait eta maite dut nola harrapatu duen nik bizi izandako esperientzia. Denon artean kontatzen dugu istorioa eta oso gaurkoa da, zoritxarrez. Gogorra da nola jarri ditugun muga horiek... Zer da bertokoa, zer da etxekoa, zer gara gu, zer egiten dugu euskaldun bezala... Barne konfliktoak agerian geratzen dira. Bada ere sinbologia bat, bai nire antzerkian, bai Jonen testuetan, bai Asier Ituartek egindako musikan. Zerbait intimoa kontatu nahi dugu baina politikoa ere badena. Niretzat, nire obrak beti dira politikoa.

Luhusoko Harri Xuri aretoan izango da estreinaldia, Artedraman ohikoa duzuenez.

Murgilduta gauden sorkuntza prozesu honetan Euskal Herriko herri ugartan egin ditugu egoitza artistikoak eta hori pozgarria da. Leioan, Luhuson, Itsasun, Zumaian eta Maulen egin ditugu entseguak eta horrek ematen dio izaera berezia. Euskal komunitatea osatzen duten herri askotan egon gara sortzen eta horrek euskal antzerkiari beste zentzu bat ematen diola uste dut. Sare hori bultzatzeak asko motibatzen nau une honetan. Horrela euskal teatroaren imaginario hori egiten ari naizela iruditzen zait. ■

Haur literatura

Egun bat itsasoan
 Paula Carbonell
 Irudiak: Marjorie Pourchet
 Itzulpena: A. Goikoetxea

Fragatina, 2015



Hondartza hustu arte

FRAGATINA Huescan sorturiko argitaletxe nahiko berria dugu, eta azken urte hauetan poliki-poliki hasi da bere liburuetakoz batzuk euskaraz ere plaza-ratzen. *Egun bat itsasoan* da azkenetako bat; album askoren itzultzaile dugun Arkaitz Goikoetxeak tesuaren poetikotasuna euskarara ederki ekarri du.

Liburuko izenburuak dioen bezala itsasoan eguna pasatzera doazen ama-alabaren kontakizuna azaltzen zaigu orrietan; eta aurretik aipaturiko tonu poetikoa lehen esalditik bertatik nabarituriko dugu: “Egunsentiak presarik gabe eman du pausoa, gatzetz bete dut esku osoa, itsasoa”.

Albumetan ohikoa den moduan testuak dioenez gain irudiak informazio ugari eskaintzen digu eta Marjorie Pourcheten lehenengo ilustrazioan bertan hondartzan ama eserita, alabarekin eginiko hareazko gaztelua, neskaxa korrika eta ohiko paisaia ikus ditzakegu (arrantzalea, kaioak...); irudien tonuak eta koloreak errealitatearen eta fantasiaren arteko giro batera eramaten gaituzte. Eta mundu horretan, egiazko eta irudimenezko munduetan murgildurik igaroko ditugu liburuko orriak. Mariaren ama dugu narratzailea, eta alabak bizi izandako esperientziaz ari zaigu, nola aurkitu duen mezu bat botilan, mezuaren atzetik beste pista batzuei jarraitu dien eta... “Laguntza premian nago”, irakurtzen dugu, “itxileku honetan, ezin dut gehiago! Maria hurbildu da arroka ingurura

eta... –Laguntza, laguntza!” Mariaren bidaia harrapaturik dagoen sirenatxo bat aurkitzean amaitzen da. “–Arrantzale baten sarean gelditu nintzen harrapatuta. Leize honetan utzi ninduen preso sartuta. Lurri-nak ekarri zizkidan botila hauetan eta jateko goxoa, eta lepokoa perlaz egindakoa. Lagundu, eta zuretzat dena”. Hitz horiek esaten dizkio sirenak Mariari; honek, baina, ez du ezer behar, sirena aske uztea, libre ikustea, nahikoa baitzaio.

Ikusi den bezala, zuzeneko kontakizuna eta narraztailearena tartekatzen dira istorioan zehar; irudien presentzia handiak eta hauek transmititzen duten informazioak erraztu egiten dituzte narrazioan egon zitezkeen arazoak; estiloagatik eta narrazioaren tonu poetikoagatik. Izan ere, irakurle txikia behin eta berriro buelta daiteke istorio honetara berrirakurketa aberatsagoak izateko, istorioaren inguruko detailak eta zehaztasun txiki berriak aurkitzen joateko.

Azken orrira heltzean, gainera, ama-alabak etxerantz doaz, “Arratsaldea badoa, olatuak, kresala. Eguzkia etzan da lotarako bezala. Hareaz beteta noa. Oraina ezkutura doa. Hartu dut nire neskaxa” esaten digu amak; eta ondoren: “Hustu da hondartza”. Eta bukatu liburua.

Eta gu, lehen orrira bueltatu gara. ■

Xabier Etxaniz Erle



TANTTAKA TEATROA
 KREDITUA
 Urriak 16, ostirala 21:30



basterokulturgunea.blogspot.com.es | ☎ 943.30.35.40

ezpeleta^e

Garibai auzoa, 10
 20560 Oñati, Gipuzkoa
 943 781227
 rain@ezpeleta.com
 www.ezpeletaparaguas.com

f g+ p /ezpeletarain

Lan ezkutua



FILMETAKO SOINU-BANDAK konposatzea ez da oso elikagai konpletoa musikariaren autoestimua asetzeko. Beti irudia azpimarratuz, askotan pelikularen giroa ez litzateke lortuko musika egokirik gabe, baina aitortu behar da ikuslea gehienetan ez dela horretaz jabetzen. Lan ezkutu, neketsu eta zaila egiten duten konpositoreek izan zuten omenaldi txiki bat, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eskutik, Donostiako Zinemaldiaren barruan.

Bost musikariren lanak disfrutatzeko aukera izan genuen, dagozkien filmen zatiak –ia laburpentxoak– proiektatuz. Eta ariketa kuriozosa suertatu zen, oso eskergarria. Alde batetik, konpositoreen koalitateak eta bakoitzaren nortasun berezia apreziatu genituen; bestetik, sentitu genuen nola kasu batzuetan oreka berezia lortzen den irudiaren eta musikaren artean eta beste batzuetan batakan jan egiten duen bestea –batzuetan musika da jalea–; eta, musika alde batera utziz, txunditu egin ninduen ikusteak nola minutu gutxi batzuetan sentitzen zen filmaren kalitatea, edo kalitate eza.

Alfonso de Vilallongaren *Blancanieves* filmaren bandarekin hasi zen saioa, oso ondo egina, oso klasikoa, eta oso egokia zuri-beltzez egindako ipuin klasikoaren bertsioarentzat, non fotografia dena zen, polita, inpaktantea.

Jarraian, agian gehien gustatu zitzaizkidan bandak, Pascal Gaignerenak. *Loreak* pelikularen zati batzuk ikusi genituen, musika iradokitzaille eta aberatsarekin, eta *Lasa eta Zabala*ren soinu-banda bizkorra disfrutatu genuen. Jeniala.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.

Zuzendaria: Roman Gottwald. **Egitaraua:** Alfonso de Vilallonga, Fernando Velázquez, Joan Valent, Pascal Gaigne eta Alberto Iglesiasen zinemarako lanak. **Lekua:** Donostiako Belodromoa. **Data:** irailaren 19a.

Álex de la Iglesiaren *Las brujas de Zugarramurdi* filmaren musikak, Joan Valentenak, ederki egokitzen ziren pelikularen irudi fantasiotsuetara. Honen ondoren, Alberto Iglesiasen lanaren erakusgaiak izan genituen. Almodóvarren lau pelikula –*Todo sobre mi madre*, *Hable con ella*, *La mala educación* eta *La piel que habito*–. Aitortu behar dut ez zaidala batere gustatzen Almodóvarren zinea; beraz, salbatzen zen gauza bakarra kasu honetan musika zen, zalantzarik gabe.

Eta amaitzeko, benetako “pestiño” bat, *Zipi y Zape y el club de la canica*, Fernando Velázquezen musikarekin. Gauza hobeak egin ditu Velázquezek –*Lo imposible* filmaren soinu-banda adibidez–, baina tontakeria hau aukeratu zuten saioa bukatzeko. Balekoa, besterik ez.

Orkestra, Roman Gottwald zuzendariaren batu-tapean, ederki aritu zen. Gauza bera esan behar Donostiako Orfeoaren talde txikiak ere. ■

Montserrat Auzmendi

Bertso-zopa

Osa ezazu Etxahun Lekuek 2013an Oionen botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Munduan libre biziz izatea*. Gaia: Ahalik eta azkarren iritsi zara, baina dagoeneko berandu da.

Ume-umetatik sufridu izan dot
 bihotz txar baten _____;
 Medikuek zera esaten eusten
 _____ zala heriotza.
 Hau konpontzera _____ dot
 nire ekintzetan bakotxa
 nahiz _____ jarrera motza
 ta sentitzen dodan lotsa
 nahiz baino arina ez da ba joan
 erlojuan tik-tak _____
 Nire aurretik iritsi danak
 hartu dau _____ bihotza. (bis)

Kontrabandisten sare _____
 hala neban kontaktatu
 ta helbururantz Nigeria alderantz
 hegazkinez bidaiatu.
 Bide _____ ez bide bakarra
 nik nebana aukeratu.
 Ein genduzan hiru _____
 ta _____ nebazan hartu.
 Beranduegi _____ nazela
 ez daust ba aurpegiratu!
 Pertsona baten bizi-guragaz
 ezin da holan _____ (bis)

Bihotz barri bat _____ gurean
 zoratu _____ zeharo.
 Neure burua be ezezagun
 pertsona petral, _____
 Baina nik bizi ein gura neban
 ta _____ neban "Akabola!"
 Eztarririk hiru trago
 muga guztiak _____
 milioi gehiago jarriko dodaz
 beste biderik ez dago
 hemen _____ agintzen baitau
 bizitzak baino gehiago. (bis)



I	N	S	I	O	I	A	Z	T	N	O	R	R	O	M	P
O	H	B	E	U	V	H	I	C	R	E	T	I	A	T	E
A	S	T	O	H	E	I	U	K	J	A	F	F	L	O	G
H	O	F	U	L	T	C	H	A	O	T	P	U	L	V	
N	O	F	D	B	Z	G	L	U	K	R	B	U	D	I	V
V	R	U	P	H	A	F	A	R	A	Z	O	L	O	R	E
H	A	P	F	E	E	T	H	I	T	D	M	E	E	V	I
F	G	O	N	E	N	A	E	D	U	H	E	R	L	V	L
B	I	D	E	R	A	T	U	G	U	P	V	G	G	A	G
O	N	E	R	B	I	T	S	R	A	B	C	J	H	C	I
R	A	F	B	A	R	D	B	A	B	Z	J	D	T	L	G
A	D	M	S	O	H	I	E	N	I	N	T	Z	E	N	P
R	O	R	L	S	L	E	G	R	M	I	N	E	R	T	M
R	D	S	E	J	J	L	B	J	I	E	F	C	P	D	M
A	D	D	V	V	H	A	V	U	L	N	E	L	S	D	N

Sudokuak

Erraza

				7		6	3	
				4	9			2
4	6			3	5			9
				9	6	2	4	7
		7	4				2	6
		3	2	4	5	7		
1				8	2			4
3				5	9			
		5	8		1			

Zaila

			7			4	1	
					7		1	
1				2	9			5
7							9	2
			8	1		3	5	
		2	1					4
8					3	4		2
			4		1			
					8	5		3

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									

MARBREGAL-CC BY



Goitik behera:

1. Errealitatean oinarrikerik ez duena.
2. Ihar bihurtu.
3. Damu. Aho-gaixotasun.
4. Zerez atzizkia. Herri nafarra.
5. Idealtzat baina ezin gauzatzuzkotzat jotzen den ideia.
6. Urteko hamargarren hilabetea.
7. Seigarren musika nota.
8. Erabatekoak.
9. Engainua, azpikeria.

Ezker-eskuin:

1. Fidatu aditzaren infinitiboa. Ipurtzulo.
2. Janari bikainen zale dena, mokofin.
3. Eginkizun (alde-rantziz). Oihal zati zahar.
4. Ekaitzaren burrunba.
5. Ukatzeko hitza.
6. Sutan erraz hasten den materiala. Errepikatuz, irakiten ari den likidoaren higadura.
7. Italiako biztanle.
8. Hitzez. **Argazkian**.

Soluzioak

9	6	3	4	1	7	8	5	2
1	2	8	9	6	5	7	4	3
7	4	5	2	3	8	9	6	1
8	1	6	7	4	2	3	9	5
5	9	2	1	8	3	7	6	4
6	8	7	9	5	3	2	1	4
2	5	1	6	4	9	8	7	3
3	4	7	1	8	6	5	2	9

Ezker-eskuin: 1. Fida. Uzki. 2. Ahozart. 3. Nal. Tmpu. 4. Trumoi. Ez. 5. At. Epatu. 6. Sukoi. Bor. 7. Ialari. 8. Ahoz. Aska. **Goitik behera:** 1. Famasia. 2. Ihartu. 3. Dolu. Kiko. 4. Az. Meotz. 5. Utopia. 6. Urria. La. 7. Zia. Ibis. 8. Peroak. 9. Iruzuera.

6	4	3	7	8	2	1	9	
8	5	9	2	1	6	4	7	
1	7	2	3	4	7	6	8	
3	4	5	2	1	7	6	9	
4	6	7	1	2	3	5	8	
1	2	7	4	8	5	9	6	
5	7	6	5	4	7	8	1	
9	6	1	3	7	8	4	2	
8	3	5	4	1	2	7	9	

Zaila: Ume-umetatik sufridu izan dot/bihotz txar baten **morrontza**/Medikuek zera esaten eus-ten/**hurbil** zaha herotza./Hau konpontzen **bideratu** dot/nire ekintzetan bakotxa/nahiz **dodan** jarrera motza/ta sentitzen dodan lotsa/nahi baino arina ez da ba joan/erlojuan tik-tak **horsa**./Nire aurretik iritsi danak/hartu dau nire bihotza./Kontrabandisten sare **bategaz**/hala neban kontaktatu/ta helbururantz Nigeria alderantz/hegazkinez bidaiatu./Bide **onena** ez bide bakarra/nik nebana aukeratu./Ein genduzan hiru **tratu**/ta behar nebazan hartu./Beranduegi **heldu** nazela/ez daust ba aurpegiratu./Pertsona baten bizi-guragaz/ezin da holan **jokatu**./Bihotz barri bat **lortu** gurean/zoratu **nintzen** zeha-ro./Neure burua be ezezagun/pertsona petral, **ararro**./Baina nik bizi ein gura neban/ta **penisa** neban "Akabola"/Eztarririk hiru trago/muga guztiak **igaro**/milioi gehiago jarriko dodaz/beste biderik ez dago/hemen **diruak** agintzen baitau/bizitzak baino gehiago.

D	P	A	V	A	U	N	E	L	S	D	N
G	S	E	J	L	F	C	P	M			
R	O	M	S	S	I	N	E	R	T	M	
H	O	F	U	L	T	C	H	A	O	T	P
I	G	O	N	E	N	A	E	D	U	H	E
L	V	L	F	G	O	N	E	N	A	E	D
I	G	O	N	E	N	A	E	D	U	H	E
R	O	R	L	S	L	E	G	R	M	I	N
L	V	L	F	G	O	N	E	N	A	E	D
O	N	E	R	B	I	T	S	R	A	B	C
J	H	C	I	R	A	F	B	A	R	D	B
A	B	Z	J	D	T	L	G	A	D	M	S
O	H	I	E	N	I	N	T	Z	E	N	P
R	O	R	L	S	L	E	G	R	M	I	N
E	R	T	M	R	D	S	E	J	J	L	B
J	I	E	F	C	P	D	M	A	D	D	V
V	H	A	V	U	L	N	E	L	S	D	N

Antibiotikoen erabilera desegokia: teoria argi, praktika ez hainbeste

ANTIBIOTIKO jakin batzuekiko erresistentziak asko gehitu dira azken hamar urteotan Europan. Gurea da erresistentzia-kasurik gehien detektatzen dituen herrialdeetako bat, dela antibiotiko gehiegi kontsumitzen direlako, dela haien erabilera axolagabearen eraginez. Erabilera desegoki horren ondorioak ikaragarriak izan daitezke infekzio larri baten aurrean. Zein da panorama ilun horri aurre egiteko bidea? Herritarrek oro har, eta batez osasungintzako profesionalek –haur eta gazteen infekzioen arloan aritzen direnek bereziki–, arazoak kontzientzia hartzea.

European Centre for Disease Prevention and Control erakundeak antibiotikoen arazoizko erabilera sustatzeko kanpaina abiatzen du urtero. Botika horien kontsumo arduratsuak duen garrantziaz kontzientzia piztu nahi dute. ECDP-Cren arabera, 25.000 europarretik gora hiltzen dira urtero antibiotikoek eragindako multierresistentzia arazoengatik.

Kanpaina horren aurtengo xede nagusia ospitaletan antibiotikoen zentzuzko erabilera sustatzea izan da, erabilera desegokiak ospitaleko egonaldia luzatzea eta asistentziari lotutako kostuak gehitzea ekar baitezake, infekzio larrietan hilkortasun-tasa gehitzearekin batera. Horrez gain, erresistentziak tratamendu antibiotiko egokiaren atzerapena dakar.

Hala ere, hainbat herrialdeetan antibiotikoen kontsumoaren %90 ospitaletik kanpo gertatzen da, kasuen %85ean arnas infekzioak

tratatzeke, hilabeterik hotzetan batik bat.

Umetan antibiotiko gutxiago errezetatu

Herrialde garatuetan, otitisa da haurtzaroan antibiotikoak errezetatzeko arrazoi ohikoenetakoa. Antibiotikoek infekzioen konplikazioak geldiarazteko eta susperraldi-prozesua bizkortzeko dituzten eragin onuragarriak ondo ezagunak dira. *The Journal of the American Medical Association* aldizkarian argitaratu berri den 1999. eta 2010. urteen artean egindako 135 azterketaren berrikuspen batek adierazten duen bezala, ordea, antibiotikoen preskripzioak askoz ere murriztagoa izan beharko luke.

Kaliforniako Unibertsitateko ikertzaileek egindako azterketa horren arabera, antibiotikoekin tratatutako haurren %4-10ek alboondorioak izaten dituzte, beherakoa edo azaleko gorriuneak nagusiki. Horregatik, adituek antibiotikoekin egindako tratamenduaren on-gaitzak baloratzeko gomendatzen dute, eta ez pentsatzea antibiotiko-marka berriek tradizionalagoak edo “zaharragoak” direnak baino emaitza hobekak lortuko dituztenik beti.

Noiz eta nola hartu antibiotikoak?

Gauza jakina da antibiotikoak bakterioek sortutako infekzioetan soilik direla eraginkorrak, eta ez birusek sortutako hoztura edo gripe kasuetan, ezta ezta eta eztarriko min kasu gehienetan ere. Hala eta guzti, gu gara Europako herrialde guztien



SHEEP PURPLE-CC BY

artean era horretako osasun arazo ez hain larriak konpondu nahian medikuaren errezetarik gabe antibiotiko gehien hartzen dugunak, botika horiek behar diren kasuetarako ez gordetzeak dakartzan kalteak ondotxo ezagutu arren: erabilera desegoki horrek bakterioak erresistente bihurtzake, eta hurrengo batean antibiotikoa emanez gero, gerta daiteke alferrikakoa izatea. Horregatik, antibiotikoak errezetatzeko profesional sanitario baten ardura eskusiboa izan beharko luke, eta ez gaixoak hartutako erabakia.

Behin antibiotikoak hartzeko premia ziurtatu ondoren, beharrezkoa da kontsumoa arduratsua izatea, agindutako kopurua eta maiztasuna errespetatuz. Tratamendua amaitu ostean soberan geratutako botikak ez gordetzea gomendatzen da. Halaber, tratamendua ez da erdizka utzi behar, sintomak desagertu arren. Adituen iragarpenak beldurgarri samarrak dira: antibiotikoekiko erresistentziak egungo erritmoan hazten jarraituz gero, berandu baino lehen ez da gaixotasun jakin batzuentzat botika eraginkorrik erongo. ■

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Gaxi-gaxi

BELAR BAT txarra dela diogunean zer esan nahi dugu? Nik argi daukat: erabilera egokirik ez diogu aurkitu oraindik. Hori gertatzen zaio barrabas-belarrari, *Oxalis latifolia*. Ez da polita, ez da jaten, ez da sendagai, ez da erritugai... Ez du “balio”. Beste landareen artean enbarazu besterik ez du egiten...

Kultura kontu soila da. Asia aldean ibili berria naiz eta hara non topo egin dudan barrabas-belarrarekin. Hilerri batean, joandako senideen ohorez apaingarri polita barrabasa. Alboko argazkian dotore ikusten da. Gure belar txarra, han dotoreena, ohorezko leku batean. Gero eta toki gehiagotan erabiltzen da apaingarri. Topatu diote-eta erabilera!

Genero eta aldaera edo barietate ugari dago belar honetan: hosto gorrikoak, hosto gorri-berdekoak, lore zurikoak, lore horikoak... Estetika gustu eta disgustu ugari asetzeko adina.

Gurean ere etxeko belarra dugula esan beharko genuke, batez ere urak Atlantikora isurtzen dituzten lurretako etxeetan. Belar petrala, txatxua bailitzan tratatu izan da; azak eta babak mendetan bete duten eginkizuna hartu du barrabasak. Eta txarra eta ugaria



JAKOBA ERREKONDO

den guztiari bezala izen mordo eman izan zaio, irainerako gaia izan da; bestea nolako den azaltzeko erabiltzen da: Txomin-belarra, Patxi-belarra, Lekeitio-belarra, Bermeo-belarra, Barrabas-belarra... Zalantzarik gabe azken izen hori da politena, barrabasa: moka aritzeari eta borrokari emana dena. Barrabas-belarra soroa edo baratzea garbi, belar arrastorik gabe, erakutsi nahi duenarekin ari da, etengabe, mokoka!

Beste era bateko izenak ere baditu belar honek: mingotsa,

belar-mingotsa, hiruorri-mingotsa, bedar-garratz, mingospelar, mingarratz... Inoiz kosk egin diot badaki ozpin punttu nabarmena duela; guk umetan makina bat probatua dugu artasoroaren babesean, gaxi-gaxia zela esaten genuen. Hortik izen mordo hori. Eta belar txar honen mingotsa izatea ontzat jotzen badugu? Belar mingots gisa ongarri bihurtzen badugu? Mahaian mingots punttu hori on bada, belar on izango da barrabasa! Hasi zure entsalada berritzen! ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Etxe pareko lizarrak nahi baino gehiago ari dira hazten goraka eta mozteko garai ona zein den jakin nahi nuke. Eskerrik asko.

Beñat Otegi (Itsasondo)

Kaixo Beñat. Lizarra mozteko sasoi onena udaberria da. Izerdi berria indarrean dakar eta zuk egingo dizkion zauri horiek di-da batean orbaindu eta itxiko ditu. Horretarako sasoi az gauriak edo ebakiak ondo egi-

tea ere garrantzitsua da. Nik otsaileko ilbeheran edo martxokoan egingo nuke lan hori. Beste aukerarik ez baduzu eta garai horretan ezin baduzu egin, apirileko edo maiatzeko ilbeheran egin. ■



PLEPLE2000-CC BY SA



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Karabeleko lantaldea:

“Proba ezazu baratzea urtebetez eta gustatuz gero bizi osorako droga osasuntsua duzu”

BAZEN GARAIA! Horixe izan zen lehenik eta behin pentsatu genuena liburuaren berri izan genuenean. Bazen garaia, baratzeazaintza zentzu zabalenean garatu daitekeen isurialde honetan berari buruz jardungo duen euskarazko liburu txukun bat izatekoa.

Aspalditik jarraitu izan dugu Jakobaren tonu zorrotza eta liburuan antzeko tonua aurkitzea espero genuen. Baina, lehen aleaz jabetzean harridura puntu batek asebeste gaitu. Izan ere, liburu honetan tonua gozo, lasai, heldu eta aberatsa nabarmentzen baita. Agian, lehen orrialdeetako adiskide zerrenda luzeak badu zerikusirik horrekin.

Edozein kasutan liburuia esku artean hartzen duenak baratzeazaintza eredu aberats batekin topo egingo du, gure amonen jakintzaren zati batekin. Baratzearen atzean dagoen kultur gordailu horretan gure laborari ezezagun askoren trikimailu, hizkera, pentsaera eta kontzeptu ugari ezagutu ahalko dituzu. Batetik, baratzeazaintza ekologikoaren oinarritzako jakintzak modu erraz eta ilustratu batean ageri dira. Bestetik, oinarritzako hainbat barazkiren fitxa interesgarriak ditu, landare bakoitzaren izaera, zainketa eta beharrei buruz, euskara txukunean; edozein momentutan kontsultatzeko moduan.

Beraz irakurle horrek goza ezazu liburuaz baina batez ere bizi ezazu baratzea, sartu eskuak lurrian eta bete hatzetako azkazalak lur biziz. Proba ezazu baratzea urtebetez eta gustatuz gero bizi osorako droga osasuntsua aurkituko duzu.



Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIAN erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzuekin jaso dezakezu liburua. Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusirik ondoko zutabearen non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak:

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €
 ☎ 943 371545 · www.argaia.eu/denda · denda@argaia.eu
 Zure saltokian liburua salgai jartzeko, deitu.

@bizibaratzea · **Bloga:** www.argaia.eu/bizi-baratzea

AURKEZPEN SOLASALDIAK

herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan. Ondorengo hitzorduetak:

Urriak 7
Lasarte-Oria

Lekuona kultur etxean,
 18:30ean.

Urriak 8
Portugalete

Santa Klara Kulturgunean
 (Casilda Iturrizar, 10), 19:30ean.

Urriak 19
Donostia

Koldo Mitxelena, 19:30ean.
 Bagerak antolatuta.

Urriak 20
Lazkao

Gerriko txokoan, 18:30ean.

Urriak 29
Ereñotzu

Auzo Udalean, 19:00etan. Olak auzo elkarteak antolatuta.

Azaroak 4
Gasteiz

Oihaneder Euskararen Etxean,
 19:00etan.

Azaroak 5
Mendaro

Trinidadeko basilizian, 18:30ean.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratu duzu.

sustapena@argaia.eu

☎ 943 371 545

Emakume azkarrek atzera begiratzen dute

INDIANAPOLIS (AEB), 1911. Ray Rannoun pilotuak ia dena prest zuen Indianapoliseko 500 milietako lehen lasterketan parte hartzeko. Garai hartan, pilotuaz gain, autoetan mekanikari bat joan ohi zen aurkari adi egiteko. Eta horixe falta zuen Rannounek. Horregatik, *Liztor* ezizeneko Marmon markako auto horiari oinarri bat jarri zion aurreko aldean, eta hari helduta, ispilu bat. Hala, nahi gabe, egun ibilgailuetan ezinbestekoa den atzerako ispilua asmatu omen zuen; hala esan izan dute, behintzat, iturri gehienek.

Anne de Montemart-Rochechouart (1847-1933), Uzésko dukesa, lehen emakumea izan zen Frantzian gida-baimena lortzen. 1897an atera zuen, 50 urte zituela, eta hurrengo urtean beste marka bat hautsi zuen: Parisen, Bois de Boulognen, gehiegizko abiaduragatik isuna jarri zioten lehen pertsona izan zen, 12 km/h-ko abiadura muga zeukan eremuan 15 km/h-ko abiadura eroan zirkulatzen harrapatu zutelako. Horrek ez du esan nahi segurtasunaz arduratzen ez zenik: 1910ean, Indianapoliseko lehen Grand Prix hura baino urtebete lehenago, atzera begiratzeko ispilu bat jarri zion Delahaye markako auto kuttunari. Ez dakigu ideia berari bururatu zitzaion ala Dorothy Levitt ingelesaren aholkuari jarraitu zion.

Dorothy Elizabeth Levitti (1882-1922) *munduko neskarik azkarrena* esaten zioten; uretan, lehorrean nahiz airean irabazi zuen titulua. Auto lasterketak irabazi zituen lehen emakumea izan zen, eta 1906an emakumezkoen munduko abiadura errekorra 146,25 km/h-tan jarri zuen. Txalupa motordunean 31 km/h-ko



FOULTHAM & BANFIELD

Dorothy Levittek autoa gidatzean atzera begiratzeko ispilu bat erabiltzea gomendatu zuen 1909an, baina ez zioten jaramonik egin.

marka lortu zuen, baita hainbat estropada irabazi ere. Eta hegazkinak gidatzeko lizentzia ateratzen ere saiatu zen, azkenean helburua lortu zuen ez dakigun arren.

1909an, *The Woman and the Car: A chatty little handbook for all women who motor or who want to motor* (Emakumea eta autoa: gidatzen duten edo gidatu nahi duten emakume guztientzako eskuliburutxoa) argitaratu zuen. Gomendioen artean, zera jaso zuen: “Jarri esku-ispilu bat toki egokian, beste autoen artean gidatzean atzera begiratzeko”. Bai, 1909an kaleratu zuen liburuxka, gizonezko batek ezustean atzerako ispilua ofizialki asmatu baino bi urte lehenago. ■

Arrastoak

Kutsadura historiaurreko kobazuloetan



CONDATION

KUTSADURA BILA, lau kobazulo aztertu ditu nazioarteko ikerlari talde batek: Atapuercako Gran Dolina, Gibraltarreko Gorhams' (argazkian) eta Vanguard, eta Priegoko (Kordoba, Espainia) El Pirulejo. Gran Dolinan aurkitutako kutsadura duela 450.000 urteko guano jalkinetatik dator eta, beraz, jatorri naturala du. Baina gainerakoetan kutsadura giza jarduerak eragin zuen. Gibraltarreko koba-

zuloetan neanderthalek piztutako suen ondorio izan zen, eta Kordobako Goi Paleolitoko leizean, aldiz, berunean aberats den galena erretzearen ondorio.


Gaur egungo estandarren arabera, “metal astunez kutsatutako lurzorua” da kobazulo horietakoa, eta bertan bizi zirenenen osasunean eragina izango zuelakoan daude ikerlariak. Neanderthalak desagertzea bultzatzeraino? ■

Urbasako hiltegia

Balbino García de Albizuk (Donostia, 1943) urteak daramatza 1936ko Gerran Ameskoan izandako errepresioa ikertzen. Bere aitona hainbat lagunekin hil eta Urbasako Arrasoko leizera bota zuten. Egindako ikerketari esker, aitonaren gorpuzkinak ez ezik, beste zazpirenak identifikatu dituzte, eta garrantzitsuagoa dena: Urbasako beste leize eta amildegetan jazotako sarraskiak argitzeko bidea ireki du. Aurki liburua aterako du hori dena kontatuz.

| URKO APAOLAZA AVILA |

Argazkiak: Dani Blanco



“Ikerketa honekin ulertu nahi nuen zergatik batzuk iritsi ziren pentsatzera auzokoak hiltzea ondo zegoela”.

AMESKOAN 1936tik aurrera izandako errepresioari buruzko liburuak, atal esplizitu bat ekarriko du: “Urbasako hiltegia”. Oroimen historikoan toki berezia gordetzen duen mendizerrako triskantzek argi pixka bat izango dute Balbino García de Albizuren eta berarekin aritu direnen lanari esker.

Peritu industrial kimiko honek aspaldi ekin zion “historia txikia” ikertzeari. Aurretik beste lau liburuki kaleratuak ditu Ameskoako iraganaz. Toponimia, euskalkia, elur-zuloak eta festak ikertu izan ditu eta dibulгатzea du helburu orain, “idatzi, idatzi, idatzi!” Jose Migel Barandiaranek eman

zion aholkua jarraituz. Industria ataleko zuzendari gisa jarduten zuen enpresa kimikoa utzi eta arbasoen bailarako udalekin kontratua sinatu zuen, soldatarik jaso gabe bertako plan estrategikoa diseinatzeko.

García de Albizuk oso ondo eza-gutzen ditu Urbasako bazterrak, ez



1936ko abuztuaren 8an Jose Urbizu zegamarra fusilatu eta bota zuten Arrasoko leizera, aurretik aita ere fusilatu zuten eta ustez beste leize batera bota. 1936ko irailaren 6an Clemente Araña (29 urte), Narciso Artola (32 urte), Paulo Garciandia (43 urte) eta Antonio Maiza etxarriarrak hil eta bota zituzten, denak UGTkoak. Horiekin batera Etxarriko tren-estazioan lanean ziharduen Andrés González (32 urte) Bilboko bizilaguna ere fusilatu zuten. 1936ko irailaren 7an Eulateko Balbino García de Albizu (59 urte), Gregorio García (48 urte) eta Balbino Bados (29 urte) hil eta bota zituzten leizera, horiek ere UGTkoak.

soilik Jose Maria Jimeno Jurio etnografo eta lagunarekin topografia eta kartografia landu zuelako, ezta hango egunsenti eta saiei argazkiak ateratzeko duen zaletasunagatik ere, lotura sakonagoa da: bertan du lurperatuta aitona, hura ere Balbino García de Albizu, 1936an fusilatu zuten Eulateko UGTko militante eta basozaina.

García de Albizutarren historia erreprestatutako familia batena da. Osaba bat II. Errepublikan hil zen kartzelaren ondorioz: 1936ko otsailen Fronte Popularraren amnistiarekin irten zen kalera, baina ordurako tuberkulosiarekin zegoen. Beste osaba bat 1939an hil zen Burgosko kartzelatik atera berri, hori ere tuberkulosiarekin. Tartean, aitona fusilatutik, izeba bortxatua, eta aita Asturiasen errenditu ostean Condor Legioan zerbitzen preso: “Gernika bonbardatu zutenean aita eta ama, biak bertan zeuden, baina ez zuten elkarren berri izan. Hori dena ez zidaten inoiz kontatu”, dio García de Albizuk.

Aitari familia birrindu zioten. Nola eraman zuten hori?

Gure aitaren erdia orduantxe hil zen. Ez zuten horretaz inoiz gehiago hitz egin.

Ezta aitonen fusilatzeaz ere?

Ezta ere. Ezer ez.

Eta nola izan zenuen zuk horren berri?

Pixkanaka. Nire arreba nagusiak, gerran oso txikia zen arren, bazekien zerbait gehiago. Frantziara exiliatu

eta handik Bartzelonara pasa ziren; han ibili zen haur udalekuetan. Nik, aldiz, urte asko igaro nuen zein nintzen ere ez nekiela. Donostian bizi ginen eta ez gindoazen Eulatera. Orain ez naiz harritzen, dakidan guztia jakinda.

* * *

Aitonaren fusilatzearen kronika itzalez beteta dago. 1936ko irailaren 7an Eulateko udalean inprobisatutako kalabozan herriko UGTko sei lagun atxilotuta zeudela, apaizak haietako hiruri aitormena hartzeko agindua jaso zuen: Balbino García de Albizu, Gregorio García eta Balbino Bados. “Horrekin garbi zegoen zeini eta zer gertatuko zitzaizen ‘zerbait’”, dio García de Albizuk. Ez dakite iluntzeko zein ordu zehatzetan eraman zituzten Urbasara, antza denez kamionetan. Artzain batzuek tiro hotsak entzun omen zituzten. “Agian dena egon zen argi hasieratik, hilotzak abandonatu zituzten tokia izan ezik, hori geroago jakin zen”.

1950eko hamarkadan espeleologo batzuk Arrasoko leizera jaitsi ziren eta hezurak aurkitu zituzten bertan.

Lizarrako Eugenio Roa jaitsi zen, pultsuz. Oso konplikatu da, leizeak 10 metro ditu higakina arte, baina gero beste 10 metro daude behe-rantz. Berarekin zihoana zorabiatu egin zen ikusitakoagatik: 8-10 lagun hezurak behintzat ba omen zeuden. Goran jende asko zegoen zain, artzainak-eta, denek uste baitzuten hor bazegoela zerbait.

Orduan, aurkituko zutenaren jakitun ziren?

Roak dio esaten zutela omen zegoela jendea hara jaurtia. Baina hori toki askorengatik esaten zen. Gainazalera igo zirenean ez zuen ezer kontatu nahi izan ikusitakoaz. Zorionez, Ameskoako medikuarekin hitz egin zuen, eta honek Eulaten geratzen zen gure izeba bakarrari jakinarazi zion. Seguruenik berak aholkatuta erabaki zuen izebak zuloa ixtea, aitonenarekin batera hil zituzten beste bi lagun familekin hitz egin eta gero.

Baina nola zekiten hor zeudenak gerran hildako euren senideak zirela?

Hiruak herriko jendeak hil zituelako, horren zalantzarik ez da: hil zituzten gauean Lizarrara joan ziren ospatze- ra, kafea, kopa eta puruarekin. Nik jende askorekin hitz egin dut hura gertatu zenean bizi zena eta haiek bazekiten.

* * *

Santu Guztien egunaren bezperan itxi zuten leizea zementuz, apaiza bertan zela. Zaila da pentsatzea Frankismo betean baimena eskatu ere egin zutenik. Hilarri bat jarri zuten hiruen izenekin. Geroztik han dago, gerra zibileko oroimen historikoari loturiko Euskal Herriko monumentu zaharrena izan litekeena. García de Albizuk badaki zeinek landu zuen hilarria. Baina ez daki zer esan nahi duten goiko aldean kasik ezabatuta dauden JEL hizkiek, bere ustez “imajinazio handia” behar baita EAJri loturiko ezer dela pentsatzeko.

* * *

Leizea itxi zen, baina zauriak ez. Hasiera batean, García de Albizuk ez zuen kezka handirik izan fusilatuen deshobiratzeekin: “Nik ontzat jotzen nuen nire aitona hor zegoela”. Baina 90eko hamarkadan, Zudairin zegoela, pertsona bat hurbildu zitzaion: “Balbino izena nuela entzun eta galdezka etorri zitzaidan, Balbino asko ez baitago parajeotan. Berarekin hitz egin eta jakin nuen leizean hamar bat gorpu egon zitezkeela. Orduan hasi nintzen gehiago ikertzen, ikusi nuenean ezer ez zekiten beste zazpi familia egon zitezkeela”.

Ordurako *Te vas a enterar* aldizkaria autoeditatzen hasia zegoen Amekoako kontuekin, eta pertsona bat auzitara ere eramane zuten “halako gauzak egiteagatik *ponebomas* eta *etarra* deitu zidalako. Bere aita alkatea izan zen, nire aitona kargutik kendu zuena eta seguruenik leize hartara botatzeko oniritzia eman zuena. Epaitegian isilarazi nuen”.

2011n, udal gobernu berrien osaketarekin aukera ikusi zuen Amekoako hainbat herritan –tartean Eulaten– hobia irekitzearen aldeko mozioa sustatzeko, eta sorpresaz, denek onartu zuten.

75 urte igaro behar izan ziren erakunde ofizial batek eskatu arte leizea irekitzeko. Zergatik?

Erraza da: Balbino Bados maisua zen eta seme bakarra UPNkoa atera zitzaion. Gregorio García ezkerreko zinegotzia alarguna zen, arrebak eta ilobak baino ez zituen. Isiltasuna. Eta gure aitona: bi seme hilak, etxebizitza bahitzeko espedientea zabalik... Zer egin behar zuen amonak?

Estigma konturik ez, beraz?

Uste dut amonak pentsatzen zuela: “Nik badakit non dagoen... Hil dute eta listo!”. Gainera, artean Franco bizi zen, eta herri horietan denak karlistak zirenez, hobe isilik.

Eta diktaduraren ondoren?

Nire teoria da inork ez duela interesik izan gaian gehiegi sakontzeko, batzuk beldurra eta saminagatik, bestetzuk ez zaielako gustatzen jakitea euren aitona izan zela hura sinatu zuena edo tiroak jo zituen.

Hezurren deshobiratze eta identifikazio prozesua luzea izan da. Aranzadiko idazkariarekin jarri zen lehenik harremanetan, AFNA Nafarroako fusilatuen senideen elkartearekin ondoren. Tartean, 2012ko irailean, lehen omenaldi xumea egin zuten senide eta herritar gutxi batzuek. Baimena lortu eta 2013 amaieran ireki zuten azkenean leizea: “Igeltserotzan apendiz ibilitako bat eramane nuen, zuloa oso ondo itxita baitzegoen, berak esan zuen ‘zulatu hemen, hemen eta hemen’, jaitsi eta hor aurkitu zituzten gutxienez sei lagun gorpuzkinak”.

“Leizera bota zituztenean denak hilda zeuden, eta eskertzen dut hori jakitea”

Ez zen sorpresa izan, areago, gorpuzkin gehiago egotea espero zuten. Baina halakorik ez esatea erabaki zuten, Gobernuak oztoporik jar ez zezan. Han utzi zituzten, harik eta 2014ko asteazken, ostegun eta ostiral santuarekin deshobiratze osoa egin zen arte. Jende asko hurbildu zen, “kontua *glamourra* izaten hasi zen –dio historialariak–, jada ez zen fami-

liantzako gauza bat, hildako asko zeuden”. García de Albizu oso kritikoko azaldu izan da zenbait elkarte eta esparrutatik izandako jarrerarekin.

Egun batzuetara, Donostia Ospitalean Aranzadiko Lourdes Errastik eta Pako Etxeberriak lan egiten duten eraikineko gelara sartu zirenean, 10 lagun hezurak ikusi zituzten mahai banatan jarriak. Auztegi-medikuen azterketak ez zuen zalantzarako tarterik uzten: denak gizonezkoak, denak tiroz hilak, batzuek zuloa lokiaren parean zuten, gutxi batzuek goitik beherantz, eta gehienak bala bakarrez hil zituzten, hiru izan ezik, tartean Balbino García de Albizu: “Nahiko burugogorra zen eta bigarren tiroa eman behar izan zioten”.

Desobiratzeekin, gertatutakoaren detaile gogorrak jakin izan dituzue...


Hamar lagun zeuden, ez genuen beste informaziorik. Hori bai, leizera bota zituztenean denak hilda zeuden, eta eskertzen dut hori jakitea. Eugenio Roak behin aipatu zidan haietako bat bazterrean ikusi zuela, ezkututzen saiatu izan balitz bezala...

Halako historia asko kontatu ohi dira Urbasako hilketen inguruan.

Bai, ahotsak entzuten zirela ere bai. Noski, bost zakur jaitsi zituzten

2015eko ekainaren 29an fusilatuen hezurak berriz sartu zituzten Arrasoko leizean –Jose Urbizurenak Zegaman hobiratu ziren–, tokia “duindu” ondoren. Familien arteko kohesioa eta leizearen egokitasun teknikoa izan dituzte kontuan, besteak beste. Hilarri zaharra mantendu eta berria jarriko dute izen guztiekin.





García de Albizu paper artean eta Otsaportilloko leizean azaldutako krisketa bat eskuan duela.

bizirik soka batekin, hildakoak jan eta putreek moxal gazteekin egiten dutena egin zezaten. Zakurrek ezin zuten handik atera eta hormetatik behera zihoan ura edaten zuten. Hotsak entzuten zirela? Jakina, zakurrak ziren. Elkari jaten hasi ziren arte. Bi baizik ez dira osorik geratu, gainerakoek hozkadak zeuzkaten. Ebidentziak horiek dira, zalantzarik ez dago.

Nola lortu duzue hezurak zeinenak ziren identifikatzea?

Argitu nahi nuke identifikazioa ez zuela Aranzadik egin, hori zati historikoarekin egiten da, hezurrek ez baitaramate etiketarik.

Zerotik hasi behar izan zinen beraz?

Praktikan bai. Banekien Allin bailaran eta Arabako Haranan ez zela inor falta. Ezinbestean mendizerraren beste aldekoak izan behar zuten, eta orduan jabetu nintzen liburuan Urbasan hildako guztiak sartu beharko nituela. Zeinek zekien non zegoen zein?

* * *

García de Albizuk 100 lagun baino gehiago izan ditu inguruan lanean informazioa biltzen: ahozko eta idatzizko testigantzak jaso dituzte, Nafarroako Artxibo Orokorra arakatu dute, Espainiako Hezkuntza Ministerioari eta Ejertzitoari ere eskatu dizkiete datuak; Bizkaiko, Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroa-

ko 20 bat udaletan aritu dira bila, baita foru aldundietan ere.

Horri esker, Urbasako beste tokietan izandako krimenak argitzeko urrats handiak egin dituzte. Ubabako balkoian –Pilatosetako ere deitua– ustez botatako jendeari buruzko datuak lortu dituzte, baita Otsaportilloko leizekoak ere, bertan egon daitezkeen hildakoen kopurua zehazteraino: “Jimeno Jurio 1977ko irailan jaitsi zen Otsaportillora eta berarekin zegoen Peio Iraizoz. Berak ziurtatzen duenez, bueltak eta bueltak eman ostean 14-15 buru-hezur baino

“Fusilatuen senideei esaten genien: ‘Begira, gertatzen dena da, agian zure aitona edo aita ez dagoela Otsaportillon, beste leize honetan baizik”

ez zituen ikusi. Bada, niri kopuru bera ateratzen zait”. Leize horretan deshobiratzeak egiteko baimena jadanik eskatuta dago, 1936an bi aitonak fusilatu zizkieten eta ikerketan buru-belarri dabilen Amaia Urkijo etxarriarren eskutik.

Urbasako Arrasoko leizetik berreskuratutako hezurak aukera paregabea ziren DNA frogatik bidez ikerketa historikoko sospetxak baiez-

tatzeko: “Bederatziatik bederatzirekin jo dugu, hamargarrena aurkituko dugu, zailagoa da, baina aurkituko dugu”. Eulateko hiru lagun ez gain, Etxarri Aranzako bost eta Zegamako beste baten hezurak dira. Kasu askotan García de Albizuk berak hartu dizkie mostrak biktimen senideei, emaztea duen erizainaren laguntzaz.

Nola erreakionatu dute senideek berengana frogatik genetikoen bila jotzean?

Kontua da ezin genielako erabateko segurtasunik eman. Esaten genien: “Begira, gertatzen dena da, agian zure aitona edo aita ez dagoela Otsaportillon, beste leize honetan baizik”.

Egoera zailak dira horiek, inoiz izan duzue planto egiteko gogorik?

Ez horregatik, jendeak orokorrean zoragarri erantzun baitu. Baina kontu honen beste erabilera bat egin edo soilik argazkian atera nahi izan dutenak ere egon dira. Halakoetan pentsatu izan dut ez segitza.

Zuek hartu dituzue mostrak, eta zuek ordaindu, udalen laguntzarekin. Nola azaldu Nafarroako Gobernuak ezer ez egin ez finantzatzea ere, oroimen historikoaz lege bat onarturik duenean?

Garbi zegoen UPNk xentimorik ere ez zuela jarriko. Rajoyk aurrekontua ezer gabe utzi zuen eta bagenekien Barcinak gauza bera egingo zuela. Gehiago harritu nau zenbait udalen atzetik ibili behar izateak. Iruditzen zait ez dagoela interesik zehaztasunetan sartzeko, hura egin zutenak estralurtarrak balira bezala.

Bingen Amadoz kazetariak ARGIAN berriki egin diogun elkarrizketan dio herri guztietan zeudela “matoiak”.

Jendeak salaketak jarri zituen, kolaboratu egin zuen, eta nik aipatu egiten ditut liburuan, haiek azaltzen diren dokumentuetan oinarrituta: alkateak, epaileak, parrokoak, aguazilak... Denek ez zuten tiroa jo, baina askok hori gertatzea baimendu zuten beste aldera begiratu. Ez dut inor erre-duntzat jotzeko egiten, prebenitzeko baizik. Gaur egun jarraitzen badugu praktika horrekin, etsaia deabrua baitizan tratatzen, ordukoa gerta liteke: azkenean jendea konbentzitzen duzue etsaia, ondoen, hilda dagoela. ■

Betiko ofiziotik, haize berriak

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |



Artezi

Jarduera: Altzarien tapizatzea eta zaharberritzea.

Kokapena: Eibar.

Izaera juridikoa: Kooperatiba.

Noiztik martxan: 2014ko irailetik.

Kide kopurua: 2.



LANDER ARRETXEA

Eibarko azken tapizatzailea erretiratzear zela, harengana jo zuten Iratxe Artiach eta Norone Bizkarra durangarrek, ofizioa ikasi eta erreleboa hartzeko proposamena eginez. Transmisioan eta berrerabilpenaren kulturaren oinarritutako kooperatiba aurrera atera dute.

EIBARKO San Miguel de Aginaga kalean euren lanbidea eta lantokia aurkitu dute Norone Bizkarra eta Iratxe Artiach gazte durangarrek. Ez dute ordea berrikuntza eta start-up-ak sustatzen dituen gomendio sorta jarraitu. Erosi, erabili, bota eta berriro erostearen kultura horren errotua dagoen honetan, altzariak tapizatu eta zaharberritzen dituzte bertan. Eta oraingoz, oso emaitza onekin. “Gaur egungo kontsumo azkarreko ereduarekin aspertuta dauden adin eta era guztietako bezeroak etortzen zaizkigu, eta auzoan oso harrera ona egin digute”.

Transmisiotik abiatutako proiektua

Ez dira urte asko igaro altzariak tapizatzearena ohiko jarduera zeneetik. Eibarren bertan gutxienez bost lagun aritzen ziren lan horretan, bakoitza bere negozioarekin. Urteen joanak eta errelebo gaztearen faltak ofizioa galbidera eramaten zuten ordea, eta 82 urterekin jubilatzea erabakita, herria tapiza-

tzailerik gabe utziko zuela uste zuten Serafinek. Orduantxe ezagutu zituen Iratxe eta Norone durangarrek. Zeharka izan zuten Serafinen egoeraren berri, eta bi aldiz pentsatu gabe erabaki zuten hari bisita egitea. Ez zitzairen gehiegi kostatu adostasun batera heltzea.

Egindako tratua araberan, hiru hilabete igaro zituzten Serafin lagundu eta ofizioaren ertz guztiak ezagutzen: josteko makinak erabiltzen, altzariak desmuntatu eta berriro osatzen... “Diseinuan eta altzarigintzan aritutakoak gara, eta bagenekien zerbait gaiak, baina tapizatzailearena lan artisaia da eta soilik eginez ikas daiteke”.

Hiru hilabeteren buruan, lanerako behar adina gaitasun pilotuta, alokairu merke baten truke negozioarekin jarraitu eta nahieran moldatzeko aukera eskaini zien Serafinek. Gogoz hartu zituen erreleboa bi durangarrek, eta geroztik eguneroko lanarekin ari dira frogatzen badagoela ofizio horretatik bizibidea ateratzeko

modurik. “Ofizio asko ari dira pixkanaka galtzen, eta gazteontzat bada aukera bat horiei heltzea. Ez dugu zertan etengabe teknologia berriei begira egon, transmisioa eta besteen ezagutzak gureganatzea ere oso erabilgarria da”.

Berrerabilpenaren kultura

Han eta hemen aholkua eskatu ostean, Artezi kooperatiba bihurtzea erabaki dute, horrela horizontaltasuna eta elkarlana etengabe mantentzeko aukera izango dutelakoan. “Proiektu honekin nahi dugu ahal dugun neurrian gure inguruan eragin, bai gure lan praktikekin, eta baita berrerabilpenaren kultura sustatuz ere”.

Zentzu horretan, susmoa dute gero eta jende gehiegok jartzen duela zalantzan kontsumo eredu, eta itzuli beharko litzatekeela urte batzuk lehenago zegoen joerata: “Garai batean altzariak ia bizitza osorako ziren. Zergatik orain ez, zaharberritu egin badaitezke?”. ■

Ezkerreko independentisten erronkei begira

Ordezkaritza hirukoiztu du Kataluniako CUPek. Gorakada horrek prozesu independentistan giltza izateko ardura ekarri dio, eta erantzukizunekin batera, tamainako erronkak eta presioak ere bai. Horietako batzuk bildu ditugu analisi honetan.

| AXIER LOPEZ |



DUELA 6-7 URTE independentzia era argi eta zuzen batean babesten zuten indar bakarrenetakoa zen ezker independentista. CUPek, eta *esquerra* independentistak oro har, epe motzerako formula instituzionaletara jo beharrean, auzoz auzo “herri boterea” sortzeari ekin zioten, hau da, formazio politikoa eta balio eraldatzaileetan oinarritutako pedagogia praktikoaren bitartez jendea ahalduntzen aritu dira. Egun lan nekezaren uzta jasotzen ari dira, baita instituzioetan ere. 2000n Vinaròseko prozesua abiatu zutenean, “betiko lau katu indepeak” ikusi zituzten askok, eta urte gutxiren bueltan, 336.000 boz bilakatu dira beste askoren ezusterako. Eta harrigarriagoa dena, mezu politiko eta logika militante berari eutsiz. CUPen aho bilorik gabeko diskurtsoak eta praktikak sektore berriak

batzeko eta hazten jarraitzeko balio izan die; instituzioen zurrunbiloen parte bilakatzearekin batera etorri ohi den moderazioa gaudituz, konfrontazioari beldurrik hartu gabe. Herrialde katalanak osatzen duten lurralde guztien batasuna, antikapitalismoa, sozialismoa, feminismoa, Europar Batasunetik kanpoko independentzia... Gauzak garbi eta zuzen adieraztea salbuespena da, hegemonia lortzeko borroka izenean “politikoki zuzenak” inguratzen gaituen garaiotan. Begi pare andana adi-adi begira izango dute CUPeko lagunek, asko Kataluniakoak eta beste hainbeste handik kanpokoak.

Ezkerreko blokearen erronka nagusiak

CUPek Espainiako Estatuko zein Kataluniako erregimenen erasoal-

diari eutsi beharko dio. Sutan jarriz probatzen da eltzea. Giltza edukitzeak presioa handitzea ekarriko du ezinbestean eta urte askoan isil-isilean trebatutako ezker independentistako kidegoak orain izango du bere onena erakusteko aukera. Konplexua izaten da asanblada bidezko antolamendua politikagintza instituzionalaren abiadurara egokitzea; ikusteko dago apustuari nola eusten dion.

Independentisten arteko lehen negoziazioa: Mas President? Antonio Bañosek adierazi duen gisan, denek dute lekua prozesuan. Beraz, baita Masek ere. Baina “inor inposatu gabe, inor ez baita ordezkaezina”. Erantzukizun handiko erabakia denez, neurri bereko eztabaida piztu da. Unionismoaren oldarraldia ez da txikia izaten ari eta independentistek batasunez jokatu, edo

behintzat batasuna irudikatu, beharko dute. Gauzak horrela, galdera ondokoa da: independentismoak sektore berriak erakartzeko, murrizketen, pribatizazioen eta ustelkeriaren burua izan dena berriz agintean jartzea al da aukerarik onena? Kalkuluak kalkulu, errealitatea kaskagorria da: Masen zerrendak ez du presidentia aurkeratzeko gehiengoa lortu, CUPen beharra dute eta CUPEk mila aldiz adierazi du agintaritzea ez diotela Masi eman-go. Beraz, jokoan dagoena ikusita, JxSi-k Masen izendapena gaindiezinezko baldintzatatzat jartzea ez da komenigarria. Zentzu horretan ez da lagungarria Espainiako Gobernuaren azken zabarkeria politiko-judiziala: Mas auziperatzea herri galdeketa antolatzeagatik. Historiak erakutsi duen gisan horren moduko prozesuek ertz eta aurpegi aniztunak izan behar dute eta fokoa pertsona bakar baten gainean jartzeak aurrera begira kalte baino ez du egingo.

Ciudadansen igoerari –ordezkari-tza ia hirukoiztu dute– aurre egin beharko diote, auzoetan unionismo eskuindarraren goraldia geratzeko independentziaren inguruko pedagogia lan handia egin. Hospitaleten –Kataluniako bigarren hiririk jendetsuenean– Badalonan eta, oro har, Bartzelona inguruko gerriko gorria delakoan Albert Riveraren alderdiak irabazi izana kezkarria da oso. Konparaziorako, herri horietako askotan udal hauteskundeetan Barcelona en Comú moduko ezkerreko hautagaitzek oso emaitza ona izan zuten. Nagusiki langileek osatutako esparru horiek bereganatzen asmatu beharko dute independentistek, eta bereziki ezkerreko sektoreen jokabidea giltzari izango da zeregin horretan. Catalunya Sí Que És Pot-en multzoa baietzaren blokerak erakartzen asmatu beharko dute. Ekidistantzira lotu direnak, jarrera irmorik gabe, oso ataka zailean izango dira prozesuak abiadura hartuko duen neurrian. Beste espazio batean kokatzen saiatu izanaren aurreneko “biktima” badugu: Unió. Prozesua estatu egiturak definitzen hasten denean absentzioaren bidetik joko al dute? Edota konstituzioa definituta berau

berresteko balizko erreferendumaren aurrean, zer jarrera hartuko dute? Eta Espainiako Gobernuak berriz debekatuko balu? Horrelako ataken aurrean erantzun gisa nekez ulertuko da esatea “Katalunia nazio bezala onartuko duen presidentea behar duela Espainiak”, berriki Pablo Iglesiasek adierazi duen moduan. Ezin da erantzun bakarria izan katalanak Espainia “berri” horretan eroso sentitzeko Pablo Iglesiasek bozka ematea dela. Hori fikzio politika egitea baita. Egungo

“Batuketa alderdikoen araberako matematika ariketa errazetan katramilatu gabe, klase ikuspegi araberako talkak saihestu barik, mugarri taktikoetan indarrak batzea badagoela erakutsi du CUPEk”

Espainiako Gobernuaren –eta las-ter etorriko dena ez da oso bestelakoa izango, entzun Ciudadans eta PSOEren mezu ultranazionalista espainiarrak– jarrera inposatzaile eta antidemokratikoari erantzun zuzena emateko eskatuko diote herritarrek, testuinguru oldarkor horretan kokatu beharko dute –azken urteotan Kataluniako parlamentuak onartu eta Espainiakoak indargabetu dituen 15 legeak lekuko–. Erantzuna demokratikoa izan behar dela? Jakina. Baina galdera da: itxikeriaren aurrean, lege injustuen izenean herri borondatea azpiratzen duenaren aurrean, ez kolaboratzea eta desobeditzea baino jarrera demokratikoagorik ba al dago?

Euskal Herritik begira

Alderdien posizio irmoak aldarazteko indar herritarra antolatze gaitasuna, molde berriko komunikazio kanpaina eraginkorrak, mendebaldeko gizarteetan sarri erosatunak bahituta diruditen sektoreak aktibatzen asmatu izana... ez dira gutxi Kataluniatik etorri zaizkigun “ira-

kaspenak”. Gure txikitasunean, Asterixen galiarren pare, munduaren zilborra sentitu garen euskaldunoi apaltasun dosi egokia etorri zaigu. Eta are pozgarriagoa izan da Euskal Herriko politikak asko markatu duen –*vasquitisa* sufritu duen– herri baten eskutik etorri izana.

Ezkerreko espazioari dagokionez, fronte patriotikoaren mitoa, abertzaleen arteko batasunaren mantratik harago beste biderik badagoela erakutsi dute. Independentzia eskaera bat eta bakarria ez dagoela, independentzia ulertzeko era ez dela monolitikoa horra Kataluniako ikasgai polita. Batzuen independentzia, burgesia autoktonoaren eta alemaniarraren araberako dependentzia dela azpimarratu digute CUPEko kideek totelka hasi barik. Edo behintzat hortaz (ere) hitz egin behar dela, aurreiritzirik gabe. Elkarlanari kalte egiteko bel-durrez ahalketu gabe.

Mundua, Europa, Katalunia eta Euskal Herria galbidera daraman sistema ekonomiko eta politikoaren aurka daudenen artean hasten da indar metaketa. Batuketa alderdikoen araberako matematika ariketa errazetan katramilatu gabe, klase ikuspegi araberako talkak saihestu barik, mugarri taktikoetan indarrak batzea badagoela erakutsi dute. Mezu politikoaren lehen lerroan balioak jarriz, erakundeek pedagogiarako tresna eta bozgorailu funtzioak eman nahi izan dizkiete.

CUPEko parlamentari Anna Gabriel Sabaté horrela mintzo da La Hainek egindako elkarrizketan: “Antikapitalismoaz argiki hitz egiteari uzten bazaio, trikimailu dialektikoak erabiliz eta hainbat gauza egiteari utziz bozka gehiago jasotzeko asmoz... amaigabea da atzeratu daitekeena. Are gehiago, horrek jendea ikusteko era aldatuko luke; erreakzionatzeko gaitasuna ez balu bezala, kontzientzia politikoa izateko gai izango ez balitz bezala. Eta ez da horrela. Herri honetako langile klaseak kontzientzia handia galdu izanak ez du esan nahi galdutako borroka denik, eta beraz ez gatazka zertan hizkuntza errazagoz eta abegikorragoz zuzendu behar. Kontzientzia zioa beti lortu da gauzei beren izenez deituta”. ■

Errealitate ukigarria edo etorkizuneko asmo handiak?

Pantailaz inguratuta bizi gara, gailu bat baino gehiago erabiltzen dugu egunean zehar eta konturatu gabe, batetik bestera egiten dugu salto: mugikorretik eramangarrira eta handik tablet-era edo telebistara. Telebista ikusi bitartean ere beste pantaila batzuekin elkar eragiteko gai gara.

| ELI POMBO* |



BLOG.PEOPLESCHOICE.COM

Eduki kontsumo aldaketa *Millennials* deituriko gizarteko segmentu batek bultzatzen du. Hau da, 18-35 urte bitarteko gazteek, "natibo digitalak" bezala ere ezagunak.

DATUEK garbi erakusten digute. Millward Brown etxeak mundu mailan egindako ikerketaren arabera, erabiltzaileek gaur egun gehien erabiltzen duten gailua *smartphone*-a da (egunean 147 minutu, batez beste), telebista (113 minutu), ordenagailu eramangarria (108 minutu) eta tablet-a (50 minutu) baino gehiago.

Gailuen erabilera eguneko orduaren arabera ere aldatzen da. Ordenagailua gehienbat goiz eta arratsalde partean erabiltzen da, telebistek eta tablet-ek gauean dute presentzia gehiago, alegia erabiltzaileak etxean daudenean.

Gainera, ikerketa erantzun zuten artean %35ak hainbat gailu

(*smartphone*, tablet eta telebista) aldi berean erabiltzen dituztela baieztatu zuten. Esperientzia hau *second screen* edo bigarren pantaila bezala da ezaguna eta marketin munduan eta oro har ikus-entzunezko sektorean erabiltzen hasi dira.

Hau da, bigarren pantaila kontzeptuarekin, hainbat pantailatan



“Ataza anitzeko pertsonak izan gara betidanik. Berritasuna da orain telebistarekin zerikusia duen zerbait egiteko aukera dugula, smartphone edo tabletak erabiliz”

Iñako Gurrutxaga,
EITB.eus

eta aldi berean zeregin desberdinak egiteari buruz ari gara, pantaila nagusi baten osagarri gisa. Adibidez, telebista ikusten dugun bitartean, bertako edukari buruz iruzkinak egitea sare sozialetan edo iragarki bat ikusten ari zarela produktu horri buruzko informazio osagarria eskuratzea tablet edo *smartphone*-aren bidez. Mundu mailako datuek erakusten digutenaren arabera, internet gailu mugikorren bidez kontsultatzen duten erabiltzaileen %61ek gailu mugikor bat erabiltzen du telebista ikusten duen bitartean.

Badirudi beraz, informazioaren kontsumo pasibotik aktibora pasagarela eta telebista ikusten dugun bitartean, adibidez, beste gailu eta kanal batzuekin elkar eragitea bilatzen dugula.

Zentzu honetan Millward Brown etxearen ikerketaren arabera, APP baten bidez elkar eragitea ahalbidetzen duten telebistako edukiek erabiltzaileen arreta bereganatzen dute, sare sozialetan erraz partekatzeke modukoak badira eta iraupen laburrekoak. Era berean, traolaren

bat edo on-line kontsultatu daitekeen edukia (*behind the scenes*) duten iragarkiek oihartzun handiagoa dute. Zentzu horretan, Atresmedia etxeak egindako beste ikerketa batek ondorioztatu zuen bigarren pantailaren erabilerak ikusleek markei buruz duten oroitzapen indizea bikoizten duela.

EITB.eus-eko edukien ardura-dun Iñako Gurrutxagaren aburuz, lehen ere jendeak telebista ikusten zuenean, sarritan beste zerbait egiten egoten zen, josten, plantxatzen... “Ataza anitzeko pertsonak izan gara betidanik. Berritasuna da orain telebistarekin zerikusia duen zerbait egiteko aukera dugula, *smartphone* edo tabletak erabiliz”.

Euskal Herrian oraindik ez dago merkaturik

Aletxu Echevarria, besteak beste, The Blackout Project edo Mucho-Move negozio digitalak abiarazi dituen ekintzailea da. Berak argi dauka eduki kontsumo aldaketa hau Millennials deituriko gizarteko segmentu batek bultzatzen duela. Hau da, 18-35 urte bitarteko gazteek, “natibo digitalak” bezala ere ezagunak. “Adin horretatik aurrera, telebistaren kontsumoa adibidez pasiboagoa da”, dio Echevarriak.

Echevarriaren ustez, AEBetan eta Ingalaterran kontsumo digital eta interaktibo maila handia dute dagoeneko, baina Euskal Herrian 5-10 urte atzetik goaz, oso hastapentetan gaude: “Egunerokotasunak Madrilen egotera eramaten zaitu, han baitaude iragarle eta telekomunikazio enpresa handiak”. Hala, berak sortutako enpresek Bilbon eta Madrilen dituzte egoitzak. Echevarriaren helburua Euskal Herriko edozein ekosistematan garatu ahal izateko egitasmo digitalak sortzea da, ikuspegi globala dutenak, hain zuzen ere.

Iritzi antzekoa du Batura Mobile Solutions Bilboko enpresako bazkide Gotzon Arzelusek. Duela hiru urte *Community Wall second screen* bezala definienezakeen egitasmoa jarri zuten martxan. Egitasmo honen bidez, jardunaldi eta ekitaldi handietan jendeak bere gailu mugikorra erabiliz Twitter, SMS edo e-posta bidez bidaltzen zituen



“Egunerokotasunak Madrilen egotera eramaten zaitu, han baitaude iragarle eta telekomunikazio enpresa handiak”

Aletxu Echevarria,
ekintzailea

mezuak eta argazkiak pantaila handi batean erakustea lortu zuten. Erabilia izan zen adibidez, Araba Euskaraz edo Kilometroak ekitaldietan, “baina ez dugu lortu produktu hori errentagarri egitea, ez dakigu zergatik, akaso orduan oraindik ez zelako momentua”, dio Arzelusek.

Arzelusen aburuz, mundua doan abiaduraren aurka goaz: “Esparru digitalak metrikak, neurketa zehatzak ahalbidetzen ditu, eta hala ere, Euskal Herrian markak marketinari dagokionez, oraindik analogikoan mugitzen dira gehiago, ez dute jautzia ematen”.

Rikardo Idiaketz, Ternua Group-eko komunikazio arduradunak baieztapen hau berresten du, nahiz eta euren kasuan azken hiru urtetan digitalera jauzia ematen ari diren eta datuek adierazten dutenaren arabera, egindako apustuak emaitzak ematen ari diren: “Ternua Group-en interneteko teknologiak jarraitzen saiatzen gara eta ahal dugun neurrian erabiltzen, oraindik ez gara iritsi *second screen* esperientzietara, baina on-line marketin estrategia badugu. Duela hiru urte marketin digitalaren aldeko apustua egin genuen eta ditugun indikatzaileek egindako inbertsioak errentagarriak

direla adierazten digute. Ondorioz, etorkizunean arlo honetan inbertsioak handitu egingo ditugu”. Hala ere, analogikoak oraindik pisu handia duela aitortzen du.

Baina bide digitalak besteak beste, neurketa eta pertsonalizazio era zehatzak ahalbidetzen baditu, zergatik ematen da Euskal Herrian egoera hau? Idiakezen ustez, oro har gizakioi, eta ondorioz erakundeek aldaketek beldurra ematen digute, inbertsioak egitean bermea bilatzen dugu, “baina zenbat eta datu gehiago eduki eta emaitzek egindako inbertsioen itzulera bermatu, orduan eta errazagoa izango da aldaketa”.

ETBko programazio arduradun Joselu Blancoren ustez ere, publikitate mundua oso kontserbadorea da: “Telebista berriaren metrikak gaur egun telebista tradizionalarekin konparatuz, oso txikiak dira, horregatik mugimenduak oso poliki doaz”.

Paradigma aldaketa honetan ETBren apustua telebista programen inguruan komunitatea eraikitzea dela gaineratu du Iñako Gurrutxagak: “Telebista publikoa gara, baina komertziala ere bai eta emaitzak eman behar ditugu. Une honetan merkatuak emaitzak telebistan neurtzen ditu, beraz, helburu nagusia telebista da, baina badira beste helburu batzuk osagarriak direnak, adibidez, komunitatea eraikitzea”. Zentzu honetan gogorarazi du ETB izan zela European Twitterreko mezuak telebistan txertatu zituen lehena, 2008. urtean *Nick dut Nik* programan, hain zuzen ere.

Sormen industria baten aldeko politikaren beharra

Izen desberdinak jasotzen dituen arren eta nahiz eta kontzeptu bakoitzaren barnean hainbat azpisektore integratu, sektore industrialetik at mugitzen den beste sektore ekonomiko baten beharrezanez eta etorkizunaz ari gara. Deitu kultur industria, sormen industria edo eduki digitalen industria.

Aletxu Echevariaren ustez sektorearen eraldaketa beharrezkoa da, “bestela ikus-entzunezko sektorea hemen oso ahul geratuko da”, dio. Horretarako Eduki Digitalen



“Esparru digitalak metrikak, neurketa zehatzak ahalbidetzen ditu, eta hala ere, Euskal Herrian markak marketinari dagokionez, oraindik analogikoan mugitzen dira gehiago, ez dute jauzia ematen”

Gotzon Arzelus,
Batura Mobile Solutions

Industria eta Administrazioaren arteko zuzeneko harremanen alde egiten du, gaur egun gertatzen ez den zerbait. “Administrazioen laguntza behar dugu, ez diru-laguntza moduan, baizik eta tresnak eman behar dizkigute beste merkatu batzuekin lehiatu ahal izateko”.

Beste merkatu batzuei begira, Echevariak garbi dauka hemen ere eduki digitalen industria deitu daitekeen horretan beste azpisektore batzuk gehitu behar direla, Suedia, Danimarka edo AEBetan egiten duten antzera. “Ohiko ekoizpen etxez gain, teknologia garatzen duten enpresak, publikitate eta komunikazio agentziak, eta jardunaldiak antolatzen dituzten enpresak ere egon behar dute media ekosisteman. Horiek guztiek ikus-entzunezko komunikazioa eta bideoa behar dute”.

Josu Erguin, Digitalak ekoizpen etxeko arduradunak eraldaketa honetan sormenak duen garrantzia azpimarratu du: “Jendearen sorme-

na zabaldu behar da, formazioa, zeren gaur egun teknologian inbertsioak ez dira hain handiak eta Administrazioak horretan hartu behar du parte, formazioan, prestakuntzan, ereduak erakusten...”. Hala ere, Erguinen ustez, Euskal Herriko arazoa da sormen-lana oso garestia izatea eta sistemak ezin duela hori ordaindu.

Gotzon Arzelusen aburuz ordea, arazoaren konponbidea ez da Administrazioaren aldetik etorriko. “Hemen teknologian asko inbertitzen da, baina soilik maila industrialean. Hala ere, erakundeen politikek ez dute hau konponduko, autokritika egin beharko lukete, izan ere eurak bezero bezala garrantzitsuak dira, baina arazoa da merkatu pribatua ez dagoela teknologian inbertitzeko kulturarik”.

Iñako Gurrutxagak berriz, uste du erakunde publikoek gaur egun EITB taldearen esku uzten dutela industria hau bultzatzeko zeregina, “baina gu ez gara iristen, guk ere emaitza batzuk eman behar ditugulako, ezin dugu guk nahiko guren guztia inbertitu. Beraz, benetako industria garatu nahi bada, beste inplikazio bat eman behar da beste maila batzuetan”, gaineratu du.

Moduak ez daude argi, bai ordea helburua, lanpostu ugari eta sektore anitza ordezkatzeko duen industria aktibatu beharra dago, bestela izan pantaila anitzak, *second screen* aukerak, ikus-entzunezko mundua edo esparru digitala, oro har, erreferentziala izan daitekeen eta berezko izaera duen herri baten hegoak ebakita geratuko dira, sormenaren baldintza ezinbestekoa den askatasunaren pertsekuzio amaigabea.

Helmuga zein den zehazki jakin gabe, gauzak probatzea eta egitea da herri bezala aurrera egiteko dugun modu bakarra. Esperimentu batek bestera eramaten gaitu eta tartean jakintzaz betetzen gara. Beste batzuk azkarragoak direla? Inguruarri erreparatuz lasterka egiteak ere badu bere balioa, baina egin kontu, modu isolatuan ezin dugu aritu eta eskertzeko litzateke norbaitek lasterketa horretan tarteka edatekoa emateko zeregina balu. ■

* Iametzako kudeatzailea.

UEMAk zuzendaritza berria

UDALERRI EUSKALDUNEN Mankomunitateak kide berriak aukeratu ditu. Zazpi EH Bildukoak izango dira, hiru EAJkoak eta bat udal talde independenteetakoak. Josu Labaka Azpeitiko Udaleko zinegotzia izango da lehendakaria, EH Bildukoak. Lehendakariorde lanetan arituko da berriz, Gatikako EAJko zinegotzi Onintze Amezaga.

Ondokoek osatu dute zuzendaritza: Josu Labaka, Lierni Altuna (Aramaio), Mikel Ansotegi (Aulesti), Mainer Arrieta (Lesaka), Amaia Azkue (Berastegi), Andere Enbeita (Muxika), Eneka Maiz (Etxarri Aranz), Onintze Amezaga, Jexux Arana (Zarautz), Josetxo Mendizabal (Zesto) eta Manuel Labaka (Beizama).

Hiru udal kideren etorkizuna dago zalantzan. Azken hauteskundeetan EAJk alkatetza hartu du Tolosan eta Lekeition. Ez dute erabaki UEMAn segi ala ez. Geroa Baik gobernatzeko duen Lesaka ere zalantza da, nahiz eta ordezkaria bidali duen.

Amale Arzelus hil da



AHOTSAK-EUS

1932KO MARTXOAREN 2A. Ander Arzelusek eta Joseba Zubimendik Donostiako Unión Radio irradian euskarazko lehen irratsaioa egin zuten. Aitak alaba eraman zuen eta zortzi urteko neskatua aitak idatzitako bakarrizketak, antzezlanak eta hitzaldiak esaten hasi zen. Euskararekiko konpromisoari bizitza guztian heldu zion.

Irratian esatari izateaz gain, Poxpolina taldearekin antzerkian ibili zen. Euskarazaintzako kidea zen, eta Elvira Zipitriaren garaian andereño aritu zen Donostian. Helduei euskara irakasten ere jardun zuen, aitak sortutako euskara irakasteko metodoa lagun zuela.

Bahea

Martxelo Otamendik Berrian esanak:

“Jaime Otamendi aukeratu berri du Donostiako Udalak Donostiako Kulturako zuzendari lanerako, eta EITBko kazetari ohiaren izendapenak eztabaida sortu du C2 euskara titulua jabea ez delako. Donostiako EH Bilduko zinegotziek salatuta egin zuten udalak C2tik C1era jaitsi egin zuela euskararen exijentzia, Otamendik ez zeukalako C2. Garrantzirik kendu gabe exijentziak hautagai jakin baten arabera aldatzeko administrazio publikoan batzuetan dagoen joera justifikaezinari, zertarako nahi du Otamendik C2? Zer erakutsi behar du, orain arte, Euskadi Irratian eta Euskal Telebistan urteetan kalitatezko euskara erabiliz erakutsi ez duenik?”

Irakurle batek baino gehiagok argudiatuko du, (...) gure herrian euskara ez dagoela normalizatuta. Hala da, baina noiz arte jokatu dugu normalizatuta ez bageunde bezala? Zertan ez dago normalizatuta Jaime Otamendi euskara aldetik? Zergatik ez jokatu normalizatuta bageunde bezala, normalizatuta gauden arlo eta zirkunstantzietan?”

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Zerga kontraerreforma Adegiren zerbitzura

EAJ ETA PSEREN ESKU DAGOEN Gipuzkoako Foru Aldundia, Aberastasun eta Fortuna Handien gaineko zerga ezabatzeaz da. Zerga hura Bilduren gobernua jarri zuen martxan 2013an, PSEren babesarekin, eta Ondarearen gaineko zergarekin baino %50 gehiago biltzea lortu zen. 2013ko kanpainan Gipuzkoako Ogasunak 57 milioi euro bildu zituen zerga berriarekin, aurreko urtean Ondarearen gaineko zergarekin, aldiz, 38 milioi baino ez ziren izan. Zergadunen %1 baizik ez zen egon zerga berria ordaintzera derrigortuta, eta 7.833 aitorpen horietatik, 7.718k abonatu zuten. Ordaindu beharreko batez besteko kopurua 5.855 eurotik 7.284 eurora igaro zen.

Zergatik kendu nahi dute EAJk eta PSEk zerga hori? EAJk, oposizioan zegoenean esan zuen zerga horren erruz Gipuzkoako enpresariak herrialdetik alde egingo zutela. Egiaz, 2013an 49 enpresak baino ez zuten helbide fiskala aldatu. Jeltzaleen jarrera politiko horren atzean Adegiren patronalaren presioa suma liteke. Elkarte

horrek lobby moduan funtzionatu du kontraerreforma fiskala lortzeko. Aberastasun eta Fortuna Handien gaineko zerga ezabatuz enpresa-eliteek pribilegio zaharrak berreskuratu nahi dituzte, desberdintasunak handituz. Modu horretan, Gipuzkoako aberatsek 60 milioi euro gutxiago ordainduko dute urtean, eta beti bezala, langileek ekarpen handiagoa egin beharko dute. Gipuzkoan inposatu nahi den zerga kontraerreforma honekin dirubilketa txikiagoa izango da eta zerbitzu publikoei eta aberastasunaren banaketa justuagoari erasango dio. Zerga ihes egiteko bide berriak ere irekiko dira, ingeniarietza fiskala prest izango baitute askok.

Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko zergak onurak ekartzen dituela frogatuta baldin badago, zer zor diote EAJk eta PSEk enpresa-eliteei? Azal diezaiotela herritarrei.

Juan Mari Arregi

Mekako erromesak, Saudi familiaren beste petrolioa

Irailaren 24an 1.100 erromes –4.000 zenbait iturriren arabera– hil ziren Saudi Arabian Meka eta Mina leku santuen arteko Jamaarat zubian. Hiru egunez hiru milioi sinestun musulman egonak ziren bertan otoitzean. Mahomaren aginduz sortutako turismo fededuna, negozioa, erlijioa eta Saudi dinastiaren anbizioa nahasten dira Hajj festan.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ZENBAT HIL ZIREN GIZA-LUIZIAN? Sarreran 1.100 aipatu ditugun arren, hasieran agintariak 700 aitortu zituzten. Beranduago kopuru hori eman diote *New York Times* egunkariari baina *PressTV* gunearen arabera une batez askoz zifra beldurgarriagoa ipini du Hamad bin Muhammad Al-Duweila osasun ministroko bere webean, 4.173... ordu batzuk beranduago informazio hori saretik kentzeko.

Hondamendiari esker jakin dugu askok irailaren egun horietan musulmanek ospatzen zutela Hajj festa. *Hajj* arabieraz erromesaldia da, Mahoma profetak bere jarraitzaileei emandako bost agindu nagusietako bat. Horretarako dirua eta osasuna duen sinestun orok gutxienez behin joan beharra dauka Meka eta inguruetan burutzen den peregrinaziora.

Munduko beste inon ez da hainbeste jende pilatzen Hajj egunetan adina, musulmanen egutegiaren azken hilabetean. Hiru milioi inguru aurtengoan. Bertara joanek sei eguneko erritoak konplitu behar dituzte, Mina haraneko kanpalekutik Mekako meskitara eta Arafat mendira, eta beste gune sakratuetara joanez. Tartean, Jamaarateko zubitik harri txintxarrak botatzen dizkiete deabruak irudikatzen dituzten hiru harriri.

Jamaaraten gertatu zen hondamendia. Bat batean norbait edo zerbaitek butxatu zuen bidea eta atzetik zetozenek oharkabean aurreko guztiak zanpatu zituzten. Pasabide estuan harrapatuak, bakan batzuek lortu zuten bazterreko sare edo hormetan gora eskapo egitea.

Ez da argitu zerk eragin zuen triskantza. Riadeko agintariak Afrikatik etorritako erromesei egotzi diete errua, ez zituztelako aginduak bete. Aldiz, Libanoko *Ad-Diyar* egunkariak kontatu du leku hartan azaldu zela Mohammad bin Salman Al Saud printzea, 200 militar eta 150 polizia inguraturik, eta konboi honek blokatu zuela bidea

Riadeko agintarien kontrako kritika gogorrak entzun dira. Zorrotzenak, Irandarrenak. Bestelako arazoez gain behin eta berriro errepikatzen baitira istripu larriak Islamaren santutegi nagusietan.

Hamabost egun lehenago garabi bat amildu zen 100 baino gehiago hilaz Mekako meskitan. 2006an 336 hil ziren oraingoaren antzeko istripuan. 1990ean 1.426 hil ziren beste giza luizi batean, orduan ere oraingoan bezala hildako multzo handiena erromes irandarrek osatua zen.

Baina antolakizun eskasa salatzaz gain, Iranek eskatzen du mahometano guztientzat –Saudi Arabia erresuma sunita da, Iran

Britainia Handitik Mekarako erromesen bidaietan berezitatutako *Essential Islam* gune-ko irudian, Mina harana. “*Jamarats*” markatutako puntuan dago Jamaarateko zubi famatua, sei solairuko eraikin handia, zeinetatik fidelek harrikatzen dituzten Satan irudikatzen duten hiru harkaitzak. Hortxe gertatu da iraileko istripu larria, 1.000 edo 4.000 jenderen heriotza eragin duena, 204 eta 223 kaleen bidegurutzean. Mekatik Arafat mendia arteko bidean, 100.000 oihal-etxolaz osatutako itsaso hau ikus daiteke. Bertan aterpetu dira hiru egun eta gauetz ia hiru milioi erromes mundu osotik etorriak, jatorrizko herrialdeka sailkatuak eta gizon-ema-kume bereizita. Mundu islamdarrean bizi diren krisi orok –sunitak versus xiitak, Siriako gerra, gobernuen talkak eta geopolitika, salafista eta wahabien eragin gero eta handiagoa...– badute oihartzuna honaino Hajj bidai sakratuan heldu direnen artean.


nagusiki xiita...– santutegi sakratuok zaindu ditzala nazioarteko aginte batek. Ez du horretan amore eman-go Saudi familiak, Arabian bertan daukan boterea bezala munduko musulmanen artean daukan eragina jokatzeko baititu Mekan.

Fedea, dirua, geopolitika

Hollywood baino hurbilago eduki arren europarrok apenas ezagutzen dugun Mekaren fenomenoaz informazio asko eskaini du Sylvia Chiffoleau historialari frantsesak *La Vie des Idées* gunean “*Le pèlerinage à La Mecque: une industrie sous contrôle*” artikuluan.

Chiffoleauk kontatu du nola 1957an lortu zuen Saudi Arabiak nazioarteko kontrola gainetik kendu eta Mekarako erromesaldia-aren antolakizun osoa bere gain hartzea. Horren aitzakiatako bat, izurri arriskuak prebenitzea.

XIX. mendean baperezko itsasontziak eta gero tren hedatzearekin indartu ziren epidemiak ere. 1865ean 90.000 hil zituen kolerak, Mekara joandakoen herena. Asiatik ekarritako gaitza fite iristen zen Europa eta Amerikaraino, eta alde-rantziz. Orduko aginte kolonialek berrogeialdi gogorrak ezarri zizkieten erromesei eta ingelesengandik independizatzeko ern e ibili ziren Saudi familiakoak leku sakratuen



men guztiak. Bertan egonaldia kontrolatzeko dauzka 100.000 polizia eta militar, 1.500 bideo kamera. Pasaporteak kendurik, erromesak eskumuturreko zinta batek identifikatzen ditu, herrialdeka sailkatuta mugitu behar du, gertutik zaindua.

Hamarkadotan arras aldatu da inguruotako paisaia. Eraikin, autopista, tunel erraldoi... 2000. urtean ekin zioten azpiegituren eraikitze harrigarri bati, tartean etxe-orrazak. 2012an hasi da hurrengo fasea: 400.000 metro karratu gehiagotan handituko dute meskita handia.

Sylvia Chiffolleauk idatzi du: “Saudi Arabiak erromesaldia garatu nahi du bere alde turistikotik, begiak jarriarik petrolioaren ondorengo ekonomia batean eta enpleguak nazionalizatzeko helburuari irtenbidea emateko. Baina proiektuok, zeinetan bat egiten baitute *kitch* estetika eta erraldoikeriak, eraikitzen dituzte hiriaren lehengo alde zaharra eta bere monumentuak suntsitzearekin batera”.

Mundu osoan gizarte musulmanak aldatzearekin ari da aldatzen Hajj erromesaldia. Klase ertainetako gazteek gero eta gehiago darabilte turismoa egiteko modu bezala. Sakratua eta profanoa nahastuz, kontsumismoz gero eta gehiago kutsatzen da peregrinazioa.

Aldiz, berrikuntza da ere emakumeen parte-hartze gero eta handiagoa. Senarrarekin edo familiako gizonen baten zaindaritzapean joan behar dute, hori bai. Baina “meskitetan emakumeak gutxi azaltzen diren bezala, erromesaldia aniztasuneko gunea da” dio Sylvia Chiffolleauk. ■

zaindaritza beren gain hartzeko.

Gero hegazkina iritsi zen eta berarekin fededunak trumilka mundu osotik. 1850ean 2.000 heldu baziren Indonesiatik, gaur 200.000 heldu dira. Eta hori Riadek kuotak ezarri dituelako, bestela askoz gehiago letorke.

1987tik daude kuotak: herrialde bakoitzarentzako daukan milioi bat sinestuneko 1.000 baimen. 1990ean iritsi ziren erromesak milioi bat izatera, orain hiru milioitik gora dira. Txanda noiz iritsiko baimen zain daudenak, milioika dira.

Mekarako bidaiak antolatzeko agentzia publikoak badira, eta pribatuak ere bai. Prezioak oso diferentek dira herrialde batetik bestera. Frantziatik joateko kalkulatu

behar da hiru asterako 5.000-6.000 euro hiru izarreko hotelean, 8.000 euro bost izarrekoan. Britainia Handitik merkexego omen da.

Antolatzailea gobernua denean, merkeago. Indonesiatik 2.400 eurotan ateratzen da bidaia, Tunisiatik 1.700ean. Zerbitzuak ere galga berekoak, hiru edo bosnaka bildurik gela bakoitzean, zerbitzuak ere hala moduzkoak askotan.

Mugitzen diren dirutza horien zati bat Saudi Arabian geratzen da, noski. Baina sinestunen errege izan nahian Mahomaren askazikoak ez diren Saud dinastiakoek 1986tik Mekaren zaindaritzan oinarritu dute beren agintea, erregea santutegien zaindari izendatuz.

Riadetik kontrolatzen dira bai-





ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Ibarretxe eta Mas

2004KO ABENDUAREN 30a, Eusko Legebiltzarrak Ibarretxe Plana onartu zuen Batasunaren ezinbesteko hiru botorekin –hiru alde hiru aurka–, honek aurreko aste eta hilabeteetan planaren aurkako jarrera argia erakutsi zuen arren. Ezustekoa tamainakoa izan zen euskal gizartean eta baita ezker abertzaleko oinarrietan ere.

Onartutakoa EAeko Estatutu Politiko Berria zen, hemen bere oinarrietako batzuk: EAE herri bat da; erabaki eskubidea du; bere herritarrek erabakiko dute zein harreman nahi duten Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako lurraldeekin, hauetako herritarrek erabakitzen dutenaren arabera ere; botere judizial autonomoa; hala nahi zuenarentzat euskal pasaporte; harreman zuzena Europar Batasunean; euskal selekzioak; erabateko eskumenak ekonomian, hezkuntzan, osasunean, hizkuntza politikan, segurtasun publikoan, ogasunean eta beste hainbat alorretan.

Ibarretxe lehendakariak Espainiako Legebiltzarrera eraman zuen 2005eko urtarilean, baina estatutuaren erreforma eztabaidatzea ere ez zioten onartu PPK, PSOEk eta IUk. Esku hutsik iritsi zen Ibarretxe Euskal Herrira, aurreikusitako moduan. Ezker abertzaleak ez zuen sostengatu, Ibarretxek ez zuen babes sendorik izan EAJren aldetik eta, batez ere, ez zuen euskal gizarte soberanista mobilizatu. Erregea bakarrik zen eta biluzik. Noiz ohartu ote zen hortaz?

Urte batzuk geroago ezker abertzaleak bere egin zuen Ibarretxe Plana eta ETA eta Espainiako Gobernuaren arteko negoziazioetan erabili zuen eduki gisa. Area-

go, 2015ean ere banderatzat erabiltzen du EH Bilduk eta EAJri berreskura dezala eskatzen dio.

Euskal soberanismoa Kataluniara begira dagoen honetan, irudika dezagun bestelako eszenatoki bat 2004ko Ibarretxe Planarentzat. Ezker abertzaleak sostengatzen du bete-betean eta bere indar politiko eta sozial guztia jartzen du haren alde; aldi berean, ETAk 2006an aldarrikatutako su-etena beharrean, 2011ko armen agurra iragartzen du. Bake prozesua abian jartzen da eta, aldi berean, Ibarretxe Plana dela-eta euskal soberanismoa haren defentsan ateratzen da kalera, EAJko oinarri oso zabalak harekin eramanez.

Nola geundeke orain? Batek daki eta gainera erabat samurra da iraganeko orrietan norberak nahi dituen ibilbide orriak marraztea, baina hausnarketa eta amets egitea ere libre dira.

Mas, gaur gaurkoz, areago kereilaren ondoren, prozesuaren balantzan traba baino ekarpena da

CUP-EKO hamar parlamentariak egon litezke orain 2004ko abendu hartan Batasuneko 6 parlamentari –Josu Urrutikoetxea zen 7.ena eta ihes eginda zegoen jada– haien egoera antzerakoan. Dena da desberdina, jakina, baina CUPeko bi botok eman diezaiokete Kataluniako lehen gobernu independentistaren lehendakaritza Artur Masi edo ez. Pertsona bat ez da Estatutuaren erreforma oso bat, eta gainera, Batasunak botoak eman bazizkion ere, egiazko babesik eman ez zionez, Ibarretxe garra itzaltzen joan zen apurka Ajuria


Eneko gotorlekuan. Iñigo Urkulluk hartu zuen ondoren jeltzaleen lema, eta gaur, ezker abertzaleak eta beste sektore subiranozale batzuk Ibarretxe hura botatzen dute faltan.

KATALUNIAKO plebiszitu gaueko datu pozgarrienetakoa izan zen niretzat CUPen emaitza iragarri bezain harrigarria. Baina Junts Pel Sí bi diputatu gehiago ez izatea penaz hartu nuen; orain, bai CUP bai JxSí beste egoera batean leudeke eta Mas barrutik eta kanpotik ezkererantz indar handiz bultzatzeko moduan, baina ataka honean katramilatuta egon barik.

Kataluniako hainbat sektore independentistetan uste da, aldiz, hobe dela JxSí ez iritsi izana 64 eserlektutara, hala bi korronteez akordio sakonagoetara iritsi behariko dutelako eta horrek prozesua indartuko duelako.

Hala bedi, baina Masek azken bost urteetan egin duen ibilbidea ez da txantxetako, besteak beste, Kataluniako sektore autonomista oso zabalak independentziazarantz bideratzea lortu duelako. Nork espero zuen halako ibilbiderik egingo zuenik? Batzuk bai eta gehienek ez, are gutxiago Euskal Herritik begiratu-ta.

Argi da pertsona bat ez dela giltzarri, baina une batean guztiz lagungarri izan liteke. Mas, gaur gaurkoz, areago kereilaren ondoren eta Europar Batasunean duen irudiarekin, prozesuaren balantzan traba baino ekarpena da. Zein lekutan, ordea? Erabaki gaitza CUPek eta JxSí esku artean dutena. Ea hemen baino hobeto asmatzen duten. ■



argia

ARGIA n gure
gaiak dira gure
baloreak,
ARGIAkideak
gure oinarria

ARGIA komunitatea osatzen dugun guztion GUNEA da honakoa. Bertan, harpidedunek zein Piztu Ezazu Argiaren bitartez ekarpen ekonomikoa egin duzuen lagunek, ARGIAren baloreekin bat egiten duten produktu eta zerbitzuen **ZOKETAN** parte hartzeko aukera duzue.

HURRENGO HILABETETARAKO PROPOSAMENA

Balore hauen inguruan lan egiten duten eragile eta mugimenduen lanaren erakusleihu izango da, printzipio horiekin bat egiten duten material eta zerbitzuen berri eman eta zozketatzeko aukera egongo delarik.

URRIKO SARIAK

Bitartean, ARGIAkideoi zuen babesak eskertzen jarraitzeko, aurten kaleratu ditugun produktuen zozketan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu:

elikadura burujabetza
ingurumena
EUSKALZALETASUNA
INDEPENDENTZIA
PAREKIDETASUNA
giza eskubideen defentsa
herrien mundua
demokrazia zuzena
oroimen historikoa
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
sexu askapena



Bizi Baratzea liburua
5 opari



Europako herrien mapa
5 opari



Argia kamiseta
5 opari

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545
gunea@argia.eus
www.argia.eus/gunea

BIZI BARATZEA

garaian garaikoa garaiz.

Jakoba Errekondo

3. argitaraldia



Gure kultura
iraultzen ari den
liburua

"Nik ere uste dut etorkizun hobea ez dela etorriko lehenbizi hartu eta gero emanda; eta gure auzolaneko ohiturak iraun dezan, komeni zaigula eman-hartuetan gehiago aritzea. Ni ere jakobito bihurtu ote naiz?"

**Mikel Irizar, GFAko Hizkuntza
Berdintasunerako zuzendaria**

"Baratzea bizitza izan daiteke guk geuk gauzatu zapalkuntza batzuei buelta emateko modua, baiki. Baratzetik kanpo ikasi ditugun beste alternatiba batzuen barruan txertatzerik ba ote dugun nuke gaur galdera: bizi ote dezakegun berri"

Danele Sarriugarte, idazlea

"Jakoba, konbentzitu egin nauzu. Liburuan esaten duzun bezala, baratzeak, lagunak bezala, denbora behar du, ez gehiegi, baina etengabe"

Mikel Garaizabal, enologoa

23 €

19,50 €
harpideentzat

Eskaerak:

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

 **argia**

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA